



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko **On Fernando Salinas Molina Lehendakariorde Jaun Gorenak eta On Luis Aguiar de Luque, On Juan Carlos Campo Moreno, Montserrat Comas D'Argemir i Cendra Andrea, M<sup>a</sup> Ángeles García García Andrea, On Javier Martínez Lázaro eta On Félix Pantoja García batzordekide Jaun Gorenek** 2004ko ekainak 21 data duen Ikerlan eta Txosten Batzordearekin bat adierazitako **BOTO PARTIKULARRA. Montserrat Comas D' Argemir i Cendra Andreak eta On Félix Pantoja García**ak, modu bereizi batean, alderdi partikular batzuen gainean bildutako botoak aurkezten dituzte gainera.

I

## **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ARLOAREN AURKAKO NEURRIEN LEGEKO HAUSNARKETA OROKORRAK**

Ikuspegi orokor batetik, orain informatua den Aurreproiektuak sortzen duen lehen arazoa bere helburua da. Helburu hau hain zuzen ere, aipatutako testuak hiritarren kolektibo jakin bati, zein bere izatea emakumezkoen sexuan izateagatik ezaugarritzen den, ematen dizkion abantailen eremuan mugatua dago.

Hain zuzen ere, aski ezaguna den bezala, Konstituzio Espainolak bere 14. artikuluan legearen aurrean berdintasun printzipioa sagaratzen du (bai doktrinak bai jurisprudentzia konstituzionalak, berdintasuna nahiz Legearen “barruan” nahiz Legearen “aurrean” barne sartzan dela ulertzen etorri dira), diskriminazioaren debeku zehatzen artean sexutik ondorioztatzen direnak barne sartzan dituen pertzeptua hau.

Aurrean dugun momentu honetan oster, bere izendapen berdinean nahiz eta bere 1go artikuluan aipatutako testuaren helburua “osoko” bokazioaz (hau da,



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

arazoaren irtenbideari honek dituen alde oso ezberdinetatik aurre eginez) biztanleria talde zehatz batek, hain zuzen ere, emakumeek osatua, sufritzen duen gaur egungo indarkeria maila jasanezina gutxitzea helburutzat duten zenbait arau-preskripzio ezartzea dela lehentasunezko izaeraz aldarrikatzen duen Lege-Aurreproiektu baten aurrean aurkitzen gara.

Aldiz, gehiengoak onartutako txostenak gaur egun emakumeak jasaten duen indarkeriaren aurkako neurriak hartzen dituen lege baten aukera ukatzen du, familia baten barruan gauzatutako menpekotasun harremanak historikoki gizonezkoek emakumezkoen aurka gauzatutakoak izan direla ezeztatuz. Txostenean, hamarkadetan zehar eta maila unibertsal batean, gizonezkoak emakumeekin bikote eremuan harremanak izan dituztela, hauek nagusitasun, jabetza eta gutxiagotasun harremanak, azaltzen duen “matxista edo sexista kultura” gizarte-arazo bezala existitzen dela ez da onartzen. Txostenean gainera, adinduen eta umeen aurkako indarkeria emakumeen aurka burutzen dena baino larriagoa dela, hau posible izatea ahal bada, baieztatzera heltzen da, hain zuzen ere, babes eta auresuposatzen zaien egitatearen salaketarako gaitasun hutsagatik. Baieztapen hau historia bera ukatzea da, indarkeria gizarte-arazo bezala “genero indarkeria” dela ukatzea da, hau da, gizonezkoak emakumeen aurkako, historikoki hauek emakumeen aurka gauzatu dituzten nagusitasun eta jabetza harremanen fruitu bezala. Adingabeen edo adinduen edo emakumeek gizonezkoen aurka familia-esparruan gauzatzen den indarkeria antolamendu juridikoan erantzuna duen banan-banako arazo bat da, babes eragingarrirako eskumena bermatua izanik eta Zigor Kodearen erantzunean, Txosten honen helburu den lege Aurreproiektuaren onarpena inolaz ere babes gabe utzi gabe.

Alderantziz, boto partikular hau izenpetzen dugun batzodekideok, orain informatua den Aurreproiektuak, noizik behin gizonak emakumearen gain duen eta



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

gure gizartean zoritxarrez desiragarria izango litzatekeena baino hedatuagoa dagoen nagusitasun eta jabetza kultura baten erauzketa lortzeko helburua duten ekintzak hasteko, botere publikoak gaitzen dituzten preskripzio multzo bat duela ulertzen dugu edo baita indarkeria ekintzen biktima izan diren emakumeek jasaten dituzten ondorio larriak leuntzeko (askotan behin eta berriro indarkeria klima etengabe bat beraien egungo bizitzan jasan behar izatera heltzen den punturaino). Beste batzuetan, orain aztertutako Lege Aurreproiektuak gizartearen gaitz honen inpaktua oldartu edo gutxitzeko administrazio neurrien hartzea helburutzat duten organo eta estruktura administratibo berriak ezartzen ditu. Eta azkenik, beste pertzeptu multzo batek gure antolamenduaren legezko gorputz arrunt batzuk aldatzen ditu (ZK, Zigor Kodea, BJLO, Botere Judizialaren Lege Organikoa, PZL, Prozedura Zibilaren Legea, PKL, Prozedura Kriminalaren Legea eta abar) helburua orokorrean botere publikoak eta bereziki botere judiziala, emakumeen aurka batez ere zuzentzen den indarkeria horri aurka egiteko egoki diren tresnekin hornitzea izanik. Azken aldaketa horien artean, pertsonaren oinarrizko eskubide funtsezkoen gauzatzea zuzen edo zeharka arautzen dituzten arau batzuk gehitzen dira; hala nola, Zigor Kodeko aldaketak babes pertsonalaren eskubideari dagokionez eta arlo prozesaleko eta organiko-judizialen aldaketa multzo bat, babes judizialaren eraginkortasunerako eskubidean berehalako eragina duena.

Gauzak horrela izanik, orain aztertutako Aurreproiektuak lehen aiderazi dugun bezala, ikuspegi orokor batetik sortzen duen lehen galdera ondorengo hau da: gure antolamendu konstituzionalarekin (eta bereziki Konstituzioaren 14. artikulua), onuraduna herritarren zati bat soilik den (emakumeak) legezko-neurri multzo bat bateragarria al da edo, alderantziz, horrelako ezaugarri bat duen aukera legegile bat aipatutako pertzeptu konstituzionalak debekatzen du.



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Galdera honen erantzuna, aurrerago egingo diren ñabardurak alde batera utzi gabe, aurre-legegileak hartutako aukeraren konstituzionalitatearen aldekoa baino ezin daiteke izan.

Gure testu konstituzionalean berdintasun printzipioa eta oso era berezian bere indar arauemailea legegilearen gainean egozten duenean, ez da inolako harikortasun minimorik ere ez duen axioma zuzen eta formal bat. Alderantziz, Konstituzioaren 14. artikulua, bere azken helmena modulatzera etorriko diren beste makina bat pertzeptu konstituzionalen arabera interpretatu beharra dago. Horrela ba, esanguratsuago bezala hurrengo hauek aipatu daitezke: testu konstituzionaleko 1go artitkulua (“Espainia zuzenbidezko estatu sozial eta demokratiko bat bezala osatzen da eta askatasuna, berdintasuna, justizia eta aniztasun politikoa bere antolamenduaren balore nagusi bezala ditu”), 9.2 artikulua (“botere publikoei dagokie gizakiaren askatasun eta berdintasunerako baldintzak sustatzea... errealak eta eraginkorrak izan daitezen”), arbitrariotasunaren debekua (9.3 artikulua) eta beste esparru batzuetara berdintasun printzipio orokorraren estrapolatzea (adibide gisa 23, 31 edo 139.1 artikulua).

Eraitza da, EK (Europako Kontseilua) 14. artikulua sagaritzen duen berdintasun printzipioa berriz ere horrela interpretatua, bere eraginkortasuna legegilearen lanaren gainean egozten duenean, hedadura ezberdin bat hartzen duela, bere hitzez hitzeko adierazpenetik sumatu ahal daitekeen erabateko zentzua parte batean galtzen duen bezain pronto. Praktikan, zeregin legegilea etengabe lege multzo batean itzultzen da, non legegileak giza-errealitate ezberdinentzat edo giza-egoera ezberdinetan dauden populazioaren alderdientzat ondorio juridiko ezberdinak finkatzen dituen. Legegileak delitu bezala tipifikatzen duen gizarte jokaera desbideratu berdinak, adingabe batek burutzen duenean, kalifikazio juridiko



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

ezberdina merezi du. Eta eskubide zehatz batzuk ematen dituen Parlamentu autonomiko batek landutako legea ez zaie beste Autonomia Erkidego batean auzotutako herritarrei aplikatzen, nahiz eta Konstituzioaren 139.1 artikulua Estatuaren edozein lurralde zatitan espainolek eskubide eta betebeharrak berdinak dituztela aldarrikatzen duen.

Legegilea, beraz, etengabe hiritar espainolak sailkatzen ari da faktore ezberdinen arabera eta estatutu juridiko ezberdinak ematen ditu pertsona bakoitza parte izatera sartzen den kolektiboaren arabera.

Azken finean, legegilearen jarduerari buruzkoa den EKren 14. artikuluko berdintasun printzipioaren aurreikuspenaren arazoa ez da honek “legean” diskriminazioaren galarazpenean erabateko eta pitzadurarik gabeko agintaritzaren duen edo ez, baizik eta legegileak bere sailkapen legislatiboan ezarri ahal dituen espainolen taldeen arteko behin-behineko ezberdintasunek justifikazio objektibo eta zentzuzko bat izan ahal duten edo ez eta tratua ezberdintasun hori egokia eta proportzionala den edo ez hain zuzen ere ezberdintasun hori justifikatzen duen helburua lortzeko.

Argi eta garbi esateko, legegileak kolektibo zehatz batzuei ematen dien tratua ezberdintasunak ezberdintasun irizpide bezala, hemen gertatzen den moduan, EKren 14. artikulua esplizituki aurreikusten dituen diskriminazioaren galarazpen egoeraren bat hartzen duenean (adibidez sexua), konstituzionaltasun testa gainditzeko beharkizunak bereziki larriagotuak aurkitzen dira. Baina hau horrela izateak ez du esan nahi sexua dela eta “legean” dagoen diskriminazio guztia, konstituzioaren aurka doan zerbait bezala hartu behar dela.



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Alderantziz, legegintzako sailkapenetik ondorioztatzen diren ezberdintasunak konstituzionalki sarriro legekotzat jotzen diren justifikazioen artean, emakumeen alde egiten duten diskriminazio positiboko neurriek osatzen dutenak dira, lehen aipatutako 9.2 artikulua gure testu konstituzionalean hasieratik bermatuak izanik iada gure Konstituzio Auzitegiaren bidez, aldi askotan, gogoeta onuragarrien objektu izan direnak. Guzti hau aurrerago aztertzeko aukera egongo da.

Hain zuzen ere, gure Konstituzio Auzitegia, puntu honetan (I) mota oso ezberdineko nazioarteko erabakietan oinarritutako doktrina ugaria jarraituz, (II) Giza Eskubideen arloan espezializatutako auzitegien jurisprudentzian eta (III) Luxemburgoko Auzitegiaren doktrinan, iadanik aldaketarik gabeko jurisprudentzia batean, bai ebazpen administratibo edo judizialen, bai legezko arauen konstituzionaltasuna onartzen etorri da, inspiratuak hauek berdintasun printzipioari eduki materiala ematearen ideian eta hau, nahiz eta EKaren 14. artikulua sagaritzen duen legearen aurrean berdintasun printzipioaren zaurtzapenak iruditu ahal izan. “Diskriminazio positiboko neurriak” bezala ezagutzen direnei buruz doa gauza, hauek gutxietsiak dauden gizartearen talde zehatz batzuekin erlazionatzean; neurriak hauek baita ikuspuntu konstituzional batetik justifikatzen direnak, talde hauei bide juridikoan nahiz eta beraien eskubideen gauzatzean guztizko berdintasunerako bidea ematea helburutzat duten eina. Horrelako erabakien artean, bai nazioartekoak bai komunitarioak zein gure KAkoak, emakumeen alde leku pribilegiatua merezi dute diskriminazio positibodun neurriek, momentu askotan iadanik adostasun konstituzionala duen deklarazio bat jaso duten neurriak hauek.

Zentzu horretan, emakumezkoen sexu izaerakoa izateagatik ezaugarritzen den biztanleriaren sail batek, eta ez biztanleria osoak, jasaten duen indarkeriaren



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

aurkako neurri zehatzen hartzea helburutzat duen Lege Aurreproiektu baten legitimitate konstituzionala ulertzeko, beharrezkoa da errealitate sozial baten existentzia adieraziz hastea, zeinek kolektibo horretako partaideak, emakumeak, antolamendu juridikoak hauendako onartzen dituen onurak, mailak eta eskumenak izateko orduan ezberdintasun material egoera batean kokatzen dituen. Bigarren puntu batean, beharrezkoa da neurrien benetazko izaera juridikoa aztertzea eta legegileak, neurri hauen bitartez, egoera sozial hori eta honen ondorioak maila juridikoan leundu eta irauli nahi ditu, jokuan dauden ondare eta baloreak argitzeko asmoarekin. Eta hirugarren eta azkeneko puntu bezala beharrezkoa izango da aurrean dauden ondare eta balore konstituzionalen neurritasun baten oinarriaren arabera, proposatutako helburuarentzat zein gradutan diren egokiak eta proportzionatuak legegileak adierazitako neurriak aztertzea.

Ondoren berehala egiten diren hausnarketak helburu horretara zuzentzen dira, aurretik neurri hauetako batzuk xehetasunez aztertu eta artikulua hauen gainean egiten duen arauketa zehatzaren zuzenketa teknikoari buruzko behaketa kritiko batzuk egin baino lehen.

Helburu horietarako, kontuan hartu beharreko abiapuntua hurrengo errealitate bazterrezin hau da: 2003 urtean hain zuzen ere, Espainia guztiko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko eta Instrukzioko Auzitegietan etxeko indarkeriaren gainean guztira 76.267 salaketa aurkeztu zirela, hauetatik 66.188 bideratuak izan ziren eta ondorioz 1.000 biztanletik 1'6ko salaketa bideratuen tasa eman zen. Etxeko indarkeriaren arloko biktimen kopuru osotik (66.542), emakumeek %90'2a adierazten dute. Guztira, epaileek 16.725 kautelazko neurri hartu zituzten, %5'4ko ez-betetze gradua edo eraginkortasun gabekoa izanik eta 33.936 pertsona zigortuak izanik. Beste alde batetik 2003 urtean, etxeko indarkeria dela eta



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

hildakoen kopurua 103 pertsonetara igo zen, hauetatik 85 emakumeak ziren eta azken hauetatik 65 beraien bikote edo bikote izandakoaren esku hil ziren eta 2004an zehar, indarkeria mota berezi honen ondorio bezala, 29 emakume hil dira beraien bikote edo bikote izandakoaren esku, heriotza guzti hauek 6 adingabe eta gizon bakar baten heriotzaren aurrean. Halaber, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak emandako datu estatistikoek, Babes Ordenaren Lege Arautzailearen aplikazioarekin zerikusian, hau indarrean jarri zenetik lehen bost hilabeteetan, judizialki emandako 6.004 babes ordenetatik %95'7a emakumezkoak diren biktimei dagokiela ezagutzera ematen dute. Datu hauek gizarte espainola eragintzen duen benetako arazoa emakumeetan ematen den indarkeria dela egiaztatzen dute. Hau da beraz zinezko gizarte honetako gaitza.

Datu hauek isladatzen duten egoera soziala da benetan Estatuko Gobernuaren ekintza bultatzen duena (eta era berean justifikatzen duena), orain Txosten objektu den Aurreproiektuaren edukia hartzen duen testu legal baten eransketa gure antolamendura sustatzea hain zuzen ere. Aurreproiektuak, gure gizartean gaur egun emakumeak sufritzen duen indarkeriaren aurkako neurri multzo bat ezartzeko helburua dauka, hauek behin eta berriz errepikatzen diren indarkeria fenomenoak hain zuzen ere eta ondo esatea legoke gehiengoa emakumeak osatzen duten biztanleriaren alderdi garrantzitsu baten duintasuna eragiten dutela pertsona bezala eta hauen aurrean, botere publikoak kontzientzia hartzen joan dira eta era berean, azken urteetan, botere publiko hauek nazioarteko organo ezberdinen erabaki eta ebazpenekin bat etorritik borrokatu dira.

Oso sakonak ez izateko ahaleginean, gobernuko aukeraren alde 2002ko apirilaren 30eko Europako Kontseiluaren Ministroen Kontseiluko Gomendioa adieraztera mugatzen gara, zeinek modu esanguratsu batean *Rec (2002) 5*





## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

enuntziatu bezala darama, *emakumeen aurkako indarkeriaren arloko babesari buruzkoa* eta zeinen hasierako hitzak ondorengo hauek dira: “*Emakumeen aurka gauzatutako indarkeria gizonezko eta emakumezkoen arteko botere banaketa desorekatu baten emaitza dela berretsiz eta emakumeen sexuaren aurka diskriminazio serio bat eragiten duela...*”

Nazioarteko Hitzarmenak, hauen artean Nazio Batuen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen babeserako Europako Hitzarmena, espresuki ez diskriminazioaren printzipioari egiten diote aipamena, baina askoz zehatzago, Nazio Batuen arloan edo eskualdeko izaeradun deklarazio, konbentzio eta ebazpen ugari fenomeno honen gainean iritzia eman dute, Aurreproiektuaren Zioen Azalpenean horrela jaso dagoen bezala. Bere garrantzia dela eta, eta aurrerago Aurreproiektuaren 1go artikulua gainean esango dena alde batera utzi gabe, aipatu beharra dago 2004ko apirilaren 21eko Europear Parlamentuaren 803/2004/EK zenbakidun Erabakia, honen bitartez, emakume eta umeetan gauzatutako indarkeriari aurre hartu eta aurre egiteko erkidegoko ekintza programa bat onartzen da eta baita biktimak eta arriskuan dauden taldeak babesteko (Daphne II programa). Erabakiaren Eranskineko helburu eta ekintza zehatzen artean, espresuki, bideragarri diren jakintza alor anitzeko sareen sorketa, hezkuntza tresnen prestakuntza eta diseinua eta bai biktima eta baita erasotzaileentzako ere tratamendu garapena eta egitaraua eta talde zehatzendako egiten diren sentsibilizazio ekintzak aipatzen dira.

1979ko abenduaren 18ko emakumeen aurkako diskriminazio mota guztien ezabapenerako Hitzarmenaren 5. artikulua, Estatu parte guztiak gizon eta emakumeen jarrera soziokultural ereduaren aldaketarako neurri apropos guztiak



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

hartzera behartzen ditu, edozein sexuko gutxiagotasun edo nagusitasun edo gizon eta emakumeen estereotipatutako funtzioen ideian oinarritutako aurreiritziak eta ohiturazko edo beste edozein eratako jarduteen ezabapena lortzeko helburuaz. Espresuki zera onartzen du Konbentzioak: “ *Gizon eta emakumeen heziketaren bitartez jarrerak aldatzeko beharra, hauek eskumenen berdintasuna onartu eta estereotipatutako roletan oinarritzen diren jarduerak eta aurreiritziak gainditu ditzazten*”.

Emakumeen aurkako indarkeriaren ezabapenari buruzkoa den Nazio Batuen Deklarazioak, Batzar Nagusiak 1993ko Abenduan aldarrikatua, zera baieztatzen du: “*emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urratze bat da*”. Emakumearen aurkako indarkeriak, familian jazotzen den indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa barne hartzen duela ulertzen du, tratatu txarrak, etxean neskatoen abusu sexualak, ezkonsari edo dotearekin zerikusia duen indarkeria, senarraren bortxaketa, organo femenino sexualaren ebaketa eta emakumearentzat kaltegarri diren beste tradiziozko jarduerak, familiako beste kide batzuek burututako indarkeria ekintzak eta esplotazioarekin zerikusirik duen indarkeria.

Beijingeko 1995eko Deklarazioak, emakumeari buruzko Nazioarteko Bileraren ondorio bezala, emakumeen aurkako indarkeria sexista den eta emaitza posible edo erreal bezala indarkeria fisiko, sexual edo psikologiko min bat duen edozein ekintza dela baieztatzen du, nahiz bizitza publikoan zein pribatuan eman eta era berean ondorengo hau adierazten du: “*Emakumeen aurkako indarkeria oinarrizko mekanismo sozial bat da eta honen ondorioz emakumeak gizonarekiko subordinazio jarrera batean aurkitzen dira. Askotan familia barruan ematen denez onartu egiten da eta ia ez da salatzen. Emakumeen aurka gauzatzen den*



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

*indarkeria gizon eta emakumeen arteko historikoki ezberdinak izan diren botere harremanen adierazpen bat da, gizonaren menperaldira eraman gaituzten harremanak hauek, gizonaren aldetik emakumeen aurkako diskriminaziora eta hauen garapena galarazi izatera. Emakumeen aurka gauzatzen den indarkeriak bere bizi zikloan zehar bere jatorria kultura arloko eredu du, lengoia eta erlijioa, familia, lanean eta gizartean emakumeei ematen zaien gutxiagotasun baldintza iraunarazten dutenak. Gaia, salatze beldurra dela eta, eta lotsagatik larriagotzen da”.*

1997an Giza Eskubideek emandako Erabakiak, baita Nazio Batuenak ere, “emakumeen aurkako indarkeria sexista ekintza guztiak gaitzesten ditu, familia eta komunitatean indarkeria sexista ezabatzea agintzen du eta agerian jartzen du emakumeen aurkako indarkeria duten ekintzak aurreikusi, ikertu eta legeria nazionalarekin ados, ekintza horiek zigortzeko gobernuen betebeharrak beharrezkoa den arduraz jokatzeko, hala nola biktimei konponketa bide justu eta eraginkor batzuetarako eta asistentzia espezializatu baterako bidea ematea”. Estatuak “emakumeen aurkako indarkeria gaitzestera eta betebeharrak hau baztertzeko ohiturak, tradizioa edo arrazoi erlijiosoen praktika ez argudiatzera” bultzatzen ditu, “familia eta komunitatean indarkeria erazteko neurriak hartzea”, “legeria nazionalan zigor-arloko zehapenak, zibilak, lan alorrekoak eta administratiboak sendotzea, emakume eta neskatuetan burututako edozein indarkeria mota zigortzeko”, “pertsonal judiziala, juridikoa, medikuak, langile sozialak, pedagogikoak eta polizia eta inmigratioko pertsonalen prestakuntza hobetzea emakumeen aurkako indarkeriarako bidea ematen duten botere-abusuak eragozteko eta indarkeria sexista duten ekintza eta mehatxuen izaerari buruz pertsona horiek sensibilizatzea, biktime diren emakumeek tratu justu bat jaso dezaten”, “beharrezkoa denean, zigor-arloko kodeak zuzendu emakumeen aurka burutzen



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

*diren bortxaketa, sexu-jazarpen eta beste edozein indarkeria sexual moten aurka babes eraginkor bat bermatzeko” eta azkenik, beste hausnarketa askoren artean, Gobernuei gogora ekartzen die “Konbentzioak inposatzen dituen betebeharrak emakumearen aurka egiten diren diskriminazio mota guztien ezabapenaren gainean guztiz aplikatu beharko direla genero indarkeriarekin zerikusian” (Espainak Konbentzioa 1983. urtean berretsi zuen).*

Genero indarkeriaren aurkako kanpainerako -tolerantzia zero- bidea ematen duen Europar Parlamentuko 1997ko Uztaileko Txostenak, 1999 urtean Europar Batasunean garatzen dena, zera hartzen du kontuan: *“Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalarekin bat, emakumeen aurkako indarkeria aurrez ikusi eta jarraitzen duen politika egoki bat aplikatzen ez duten Estatu partaideek, Deklarazio honen arabera, ez dutela beraien betebeharrak betetzen ari”.*

Gure estatuan hala nola, legegile berak, lehen aldiz, uztailak 31ko 27/2003 Legean, berau etxeko indarkeriaren biktimen babes Ordenaren arautzailea, espresuki genero indarkeriari buruz ari da ondorengo hau baieztatzean: *“ familia ingurugiroan gauzatutako indarkeria eta bereziki, genero indarkeria, gure gizarterako arazo larri bat da, botere publiko guztien aldetik erantzun global eta koordinatu bat exijitzen duena. Indarkeria mota hauek sortzen dituen egoerak, soilik etxeko esparrua dena gainditzen du, populazio guztia eragin eta tartean sartzen duen gaitz batean bihurtzen delarik”.* Eta gainera Gizarte Politika eta Enplegu Batzordearen barruan sortutako azpibatzerdea aipatzen du, *“... genero indarkeriaren aurrean osoko erantzun bat emateko legegintza arloko neurriak adierazteko...”* helburuaz. Honek, emakumeen aurkako indarkeria erraz egiaztatu daitekeen gizartearen errealitate bat dela eta etxeko indarkeriaren gainean ezartzen dela erakusten du.



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Zentzu berdin batean, 2002ko irailaren 26an Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Justizia eta Lan eta Gizarte Gaien Ministerioen arteko Hitzarmen baten sinaduraren ondorio bezala sortua izan zen Behatokia, Etxeko eta Genero Indarkeriaren Aurkako Behatokia deitzen dena hain zuzen ere. Behatokia, azterketa tresna bezala datu estatistikoak lortu ditu, hauek beti bere eskumenen eremuan, alor sozio-juridikoen azterketak eginez, aurrerago 25. artikulua aipatzean azalduko den bezala.

Aurreko baieztapenetatik, zuzentzea dago argi eta garbi geratu dadin, orain informatzen ari den lege-Aurreproiektuak ezartzen dituen neurrien bitartez babestutako on juridikoa, Kontseilu honek 2001eko martxoaren 21eko Osoko Bilkuraren Akordioak iadanik agerian jarri zuen bezala, giza-duintasuna bizikidetzaren balore gorenena dela, gure testu konstituzionalak zehatz mehatz 10.1 artikuluan aldarrikatzen duena, nahiz eta, askotan, honi modu estu batean loturik agertu era berdin batean beharrezko diren beste babes-ondare batzuk, hala nola, bizitza eta osotasun fisiko eta morala eta hau, beste batzuen artean, 2000ko ekainak 24 eta irailak 7ko Auzitegi Nagusiko Epaietatik ondorioztatzen da.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko fenomeno aztertzean, doktrina gehiengoa bat dator hau tamaina ezberdin eta ugari dituen fenomeno sozial bat dela baieztatzean, beraien sexuaren arabera gizon eta emakumeei rol ezberdinak ematearen ondorio bezala gauzatzen den ezberdintasunean oinarritzen den ordena sozial baten espresioa berau eta bereizketa ezberdin eta nagusi bat maskulino izaera duenarentzat. Generoen arteko ezberdintasunaren aldarrikapen bat da, emakume askok gaur egun oraindik bizi duten ezberdintasun bat eta emakumeak menperatu eta beraien abantailak edo pribilegioak mantentzeko esparru



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

familiarrean gizonetzko askok jotzen duten formula da, eragin larriak sortuz alde batetik zuzenki emakume berarentzat eta beste aldetik baita hauen seme-alabentzat, etxeko indarkeriaren biktima ikusezinak direnak azken hauek.

Ondorioz, ez da doakoa baizik eta erraz ulertzekoa aurre-legegileak emakumeen indarkeriaren aurkako neurriak dituen osoko lege bat aukeratu izana, baina honek ez du inplikatzeko, inolaz ere, etxeko indarkeria nolabait sufritzen duten beste subjektu pasiboak babesik gabe geratzea, zeren eta hauek, aurrerago aztertzeko aukera egongo den bezala, existitzen diren Zigor Kodeko manuen bidez babes egokia lortzen dute. 153 eta 173.2 artikulua honen adibide gisa dira.

Aurrean azaldutakotik ondorioztatzen da, indarkeria emakumean gauzatzen dela edo emakumea aintzakotzat hartuz gauzatzen dela, sexu-femeninokoa izateagatik, nahiz eta ondorioak beste esparru batzuetara zabaldu. Honegatik, Lege Aurreproiektuak “emakumean gauzatutako indarkeriaren aurka” izendapena aukeratu du, Espainiak berronetsitako testuen itun eta nazioarteko hitzarmenetan babes handia duen izendapena bera.

Osoko Legeak, honegatik, biktimak tratatzen dituzten profesional ezberdinen artean neurri koordinatuak sistematizatu edo antolatzen ditu, alor zibileko eta zigor-arloko neurriak hartzean arintasun eta bat-egite handiago bat segurtatuz, izaera prebentiboa duten neurriak barne eta irizpide ezberdinak saihestuz. Aldi berean sexuen berdintasuna bultzatzen duten heziketa neurriak hartzen dira, edozein motatako diskriminazioaren aurkako borroka eta finkaturik dauden rol sozialak deuseztatzen ditu, ahaztu gabe Lege berdinen aplikazio egoki eta eraginkorra bermatzen duten neurriak finkatzea, beharrezko diren azpiegiturak sortuz eta honentzako fondoak emanez.



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Esaten dugun bezala, emakumeari zuzendutako tratu txarraren prebentzioan, abiapuntu garrantzitsua da berdintasunean oinarritzen den heziketa. Heziketa honek ez du bukatu behar soilik umeetan baizik eta nagusietan jarraitu beharra dauka. Hau dela eta, beharrezkotzat hartzen da heziketa planen ezarpena arazo sozial honen aurka koordinaturik borrokatuko duen pertsonalaren esku-hartze maila ezberdinen arabera, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen kideen, pertsonal sanitarioen eta asistentziako talde teknikoaren prestakuntza egokian tematuz, baina baita ere arazo honetan dauden alderdi pertsonal eta sozial guztien ulermen zailtasuna dela eta espezializatuko diren Karrera Judizialeko kide haien prestakuntza berezian, eta beti oinarrituz, Epaile eta Tribunalak, definizioz, eskubide eta askatasunen babesa hartzen dutela eta hauen bermatzaileetan bihurtzen direla, guztiz onartutzat izanik berdintasun eta ez diskriminazioaren printzipioa, botere publiko bezala Konstituzioari eta beste antolamendu guztiari bere lotura dela eta. Hau, Konstituzio Espainoleko 9. artikuluan eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 5. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Heziketak eta prestakuntzak esparru guztiak inplikatzeko dituen kontzientziario sozial batean ondorioztatu behar dute, hau da, bizitza ekonomikoan, politikoan eta sozialean, zeren eta emakumeak alor guztietan daude eta alor guzti horietan posible da generoa dela eta diskriminazioa aurkitzea. Aldi berean, ausarki borrokatu beharra dago espainola bezalako den gizarte demokratiko batean berezko balore eta oinarrietan heziketa orokor baten alde, bere antolamenduko goi mailako baloreak bezala askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa onartzen dituelarik eta espresuki, Konstituzio Espainoleko 10. artikuluan ondorengo hau baieztatzen duena: "pertsonaren duintasuna, berezkoak zaizkion eta ezin bortxatu daitezkeen eskubideak, pertsonalitatearen garapen



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

askea, Legeari eta besteen eskubideekiko errespetua, ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarri dira”, edozein eratako gatazkan ebazpen pazifikoaren moduak bultzatuz eta giza-esparru askotan diharduen agresibitatea ezabatuz. Zentzu honetan, positiboki hartzen dira publizitate arloan eta komunikabideetan sentsibilizazio neurriak, aspektu guztietan sexuaren berdintasunerako eta eskubideen eta giza-duintasunaren errespetuarentzako benetan kaltegarriak eta arriskutsuak diren eduki zehatz batzuk zaindu behar izanik.

Emakumeen aurka eguneroko bizitzan, eremu pribatuan, ematen diren indarkeria ekintzak, edozein intrusio edo parte-hartze tipo baztertuz eta zehazki erakunde estatualen aldetik datozenak, intimitatean geratu behar direla dioen ez hain urrunekoa den ideiaurrean, gaur egun, bistakoa da indarkeria mota horren biktimak babesteko interes sozial bat dagoela, zeren eta gizarteak ezin du bizitzaren aurka, osotasun fisiko eta psikologikoaren aurka, ohorearen aurka, askatasunaren aurka eta, azken finean, gizakiaren duintasunaren aurka burutzen diren eraso mota larri hauen aurrean zirkinik egin gabe egon. Hau dela eta, bai Espainiak bai E.K.k eta antolamenduaren gainontzekoek berronetsitako nazioarteko Itunek, pertsonaren eskubide hauek onartzen dituzte sexuaren bereizketarik egin gabe eta gainera botere publikoei zera inposatzen die: pertsona bakoitzaren eta hau barne-sartzen den taldeen askatasuna eta berdintasuna benetazkoak eta eraginkorrak izan daitezen baldintzak bultzatzeko betebeharra, bere osotasuna galarazi edo eragozten dituzten oztopoak mugituz eta bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean biztanle guztien parte-hartzea erraztuz (E.K. 9. artikulua).

Honekin, eta bereziki zigor-arloko babesari eta babes judizialari buruz dagokionez, baina baita aurreproiektuak begiesten dituen beste babes mota





## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

batzuetan, diskriminazio motaren bat sartzen ari dela pentsa daiteke, adibide gisa delitu jakin batzuk aurreikusten direnean edo larriagoak direnak non subjektu pasiboa soilik emakumea den. Bestalde, diskriminazio mota hau “ekintza positibo” bat bezala ulertu behar dago edo “diskriminazio positibo” bat bezala, espresuki komunitate antolamendu juridikoan onartua. Horrela, 1976ko otsailak 9ko Kontseiluaren 76/207/EEEko eta 2002ko irailak 23ko Kontseiluaren 2002/73/EEEko Batzordeek onartu dute gizon eta emakumeen arteko berdintasun tratua printzipioak *“gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzera zuzendutako neurriak ez dituela oztopatuko, bereziki emakumeen aukerak eragiten dituzten izatezko ezberdintasunak zuzentzeko ...”*. 2002ko martxoak 19ko EEJAaren epaiak (Lommers gaia) ondorengo hau baieztatzen du: *“Honi dagokionez, errepikatzen den jurisprudentzia batetik ondorioztatzen da, xedapen horrek helburu zehatz eta mugatua bezala neurriak onartzea duela, nahiz eta neurri hauek itxuran behintzat diskriminatzaileak izan baina hain zuzen ere, gizarteko bizitzaren errealitatean existitu ahal izango litzatezkeen izatezko ezberdintasunak deuseztatu edo gutxitzeko zuzendu direnak. Aipatzen den antolamenduak enplegu lorpeneko esparruan neurri nazionalak baimentzen ditu, postuan igoera izateko aukera barne, eta bereziki emakumeen alde eginez, lan-merkatuan beraien lehiarako gaitasuna hobetzera eta gizonetikiko berdintasun maila bereko lanbide karrera bat garatzera bideratuak daudenak (Kalanke, 18 eta 19 atalak; Marschall, 26 eta 27 atalak, eta 2000ko martxoak 28ko Badeck eta beste batzuk, C-158/97, 19 ataleko epaiak). Antzeko zentzu batean 2000ko uztailak 6ko epaia azaltzen da (Abrahamsson, Anderson eta Fogelqvist gaia): “Hirugarrenaren arabera, 1984ko abenduak 13ko Kontseiluaren 84/635/EEEko Gomendioa kontuan hartuz, emakumeen aldeko ekintza positiboaren sustapenari buruzkoa (AO L 331, o. 34; EE 05/04, o. 124), “tratu berdinen gainean existitzen diren eta helburu bezala pertsonen eskubideak ematea duten arau juridikoak, izatezko ezberdintasun*



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

*edozein mota ezabatzeko ez dira nahikoak, aldi berean, Gobernuen aldetik, gizarte-bitartekoen aldetik eta eskumena duten beste erakunde batzuen aldetik besteko ekintza batzuk hasten ez badira, jardunean dauden emakumeentzako gizartean ematen diren jarrera, portaera eta estrukturetatik ondorioztatzen diren efektu kaltegarriak konpentsatzera bideratuak”.*

Gure Konstituzio Auzitegia ere honi buruzko zenbait epaien gainean bere iritzia eman du, Konstituzio espainoleko 9.2 artikuluan ekintza positiboa oinarrituz. Horrela, martxoak 25eko 109/1993 epaiak ondorengo hau ezartzen du: *“Ezin daiteke, beraz, orokorrean baieztatu emakumeari ematen zaion edozein legezko abantaila gizonarentzat beti diskriminatzailea izango dela, soilik azken honek abantaila horren parte ez izateagatik (alderantziz emakumearentzat izan zitekeen bezala soilik sexua dela eta gabetasun bat ezartzeagatik). Eta alderantziz, ezberdintasun horren justifikazioa, berdintzean datzan emakumearen desabantaila egoera batean egon litzateke; kasu honetan, horrek lan harremanaren aurrean gertatzen delako; eta legegileak gizonari abantaila hori luzatu ahal diola alde batera utzi gabe edota gainera kendu, ekintza hau aipatutako arau konstituzionalen aurka joan gabe ere. Ezin ahaztu daiteke, Auzitegi honek lehen adierazi den bezala eta behin eta berriz baieztatu duen bezala, emakumea gutxietsitako taldearen partaide izateagatik, diskriminazioaren debekuak berarekin dakarrela ere emakume eta gizonen tratu eta aukera eraginkorren berdintasuna ziurtatzeko neurrien hartzea (128/1987 eta 19/1989 KAEk). Guzti honek, eztabaidatzen ari garen arauak konstituzionalki justifikatzen ditu, manu hauek lanean benetazko berdintasun hura galarazten duten oztopoak mugitzera zuzenduak “eta oztopo hauek hain zuzen ere benetazko aukera berdintasuna ziurtatu eta emakumearen kalterako izatez jardun ezin duten abantaila edo laguntza neurrien bidez mugituak izan ahal diren neurrian” (229/1992, f.j. 2 KAE).*



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Bere aldetik, Konstituzio Auzitegi berdineko abenduak 14ko 229/1992 epaiak zera baieztatzen du: “Hala eta guztiz ere, sexuen arteko parifikazio arauaren bi noranzkoko izaerak, tratu diskriminatzaileen biktima taldea emakumeena izan dela ez ezagutzea ez da posible eta hau dela eta diskriminazioaren debekuak berarekin dakar baita, EKko 9.2 artikuluekin zerikusian gainera, gizon eta emakumeen arteko aukera eta tratu berdintasun eraginkorra ziurtatzen ahalegintzen diren neurrien aukera. Gizon eta emakumeen arteko berdintasun helburuaren lorpenak “eskubide ezberdin berdintasun” baten ezarpena baimentzen du, hau da, aurretik badiren gizarte egoera diskriminatzaileeen neurri berriz orekatzaileen hartzea, hau, sozialki gutxietsitako emakumeen eta gizonen arteko funtsezkoa eta eraginkorra izango den parekatze bat lortzeko eta emakumearen aldetik berdintasunerako eskubidearen gozamen eraginkorra ziurtatzeko (128/1987 eta 19/1989 KAEk). Era honetan, lanean gizon eta emakumeen arteko berdintasun aukeren egotea eragozten duten oztopoak mugitzera bideratuak dauden emakumearen aldekoak diren neurriak konstituzionalki justifikatzen dira, oztopo horiek hain zuzen ere emakumearen aldeko abantaila edo laguntza neurrien bitartez mugituak izan ahal diren bitartean eta izatez emakumearen aurka jardun ezin duten bitartean, aukera berdintasun erreal hori ziurtatuz”. Zentzu berdinean azaltzen da martxoak 9ko 28/1992 epaia, zeinek 216/1991 epaia aipatuz hurrengo hau dio: “ezin daiteke diskriminatzaile eta konstituzionalki debekatutzat hartu – lehen alderantziz- botere (publiko) haiek talde jakin batzuen onerako, historikoki babesgabeak eta baztertuak egon direnak, hasiko luketen faborezko ekintza, aldi baterako izanik ere, onuragarriagoa den tratu berezi baten bitartez, duten funtsezko ezberdintasun egoera leundua edo orekatua ikus dezaten asmoarekin” (f. j. 5.).



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Emakumeen aurka gauzatzen den indarkeria den gizarteko gaitz honen kontra osoko izaeradun neurri multzo bat hartzearen testuinguruan dago ba, non orain informatua den Aurreproiektuaren xedapenek azalpen eta justifikazioa leku aurkitzen duten. Emakumeen alde diskriminazio positibodun bezala ulertu daitezkeen neurri multzo bat azken finean eta hau dela eta EK 14. artikuluan hitzez hitz esaten diren espresioetatik baino urrunago doazenak, baina emakumearen duintasuna gehiegitan zalantzan jartzen den gizarte egoera baten esparruan, legitimitate konstituzionala dutenak, hauek emakumeen aldeko diskriminazio positibodun neurriak, zeintzuk nazioarteko ebazpen askoren babesak duten, Konstituzio Auzitegiaren laguntza ere zenbait alditan jaso dutenak eta egoki eta orekatuak direnak justifikatzen dituen helburuarekiko.

Zentzu honetan, Boto honen sinatzaileek Aurreproiektuaren helburu eta asmoa Konstituzio Espainola sagaritzen dituen baloreen gauzatzera guztiz lotzen direla uste dute. Era berean, iadanik aipatu duguan emakumeen aurkako indarkeriaren aspektu guztiak kontuan hartuko lituzkeen Osoko Lege baten beharra zegoela uste du, barnean sartuz sentibilizazio neurriak, biktimen eskubideak eta hauei laguntza, babes instituzionala, zigor-arlokoa eta judiziala. Eta honegatik, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak garrantzitsu bezala ulertzen du ekintza legegilea, bereziki berritzaile bezala duenagatik eta lehen aldiz antolamendu juridikoan Osoko Lege bat barne sartzeagatik, gaiari buruz giza-eztabaida zabal bat zabaldutako Osoko Lege bat hain zuzen ere eta ondoren egingo diren behaketak alde batera uzten ez dituenak.

Balorazio positibo bat merezi du Aurreproiektua Txosten ekonomikoagatik lagundua izateak, zeinek emakumeen aurkako indarkeriaren arazo larriari era eraginkor batean aurre egiteko beharrezko diren gastuen balioespina daukan eta



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegien Plantari dagokionez aurreikuspena onuragarritzat hartzen duena, hala nola iadanik existitzen direnen egokitzapena, Doako Laguntza Juridikoaren gastua eta Osoko Auzitegiko Mediku Baloraziorako Unitateen sorkuntza, nahiz eta aurrerago adieraziko denarekin ados, talde psiko-sozial edo gai anitzeko taldeen sorrera ere aurreikusi beharko litzateke.

## II

### **AURREPROIEKTUAREN AURRE-TITULUAK EZARTZEN DUEN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO DEFINIZIOAREN GARRANTZIARI BURUZ**

Legegileak ulertu du azkenik emakumeen aurkako indarkeriak, benetan, disziplina anitzeko helmena edo garrantzia duela eta indarkeria horri biktimaren aldeko prebentzio neurriekin, laguntza neurriekin eta interbentzio sozialeko neurriekin heltzea beharrezko zaiola, ikerketa bultzatzen duten neurriekin eta baita delitu hauen errepresiora bideratutako legeko neurriekin ere. Baina aurreko Gobernuak ekimen legislatiboak, zehazki Gizarte Segurtasun Gaietan Neurri Zehatzen Lege Organikoan, ETXEKO INDARKERIA, Zioen Azalpenean laguntza neurrien eta interbentzio sozialeko neurrien aipamen soilarekin eta zigor-arloko errepresioaren gehikuntzarekin konformatu zen, Emakumeen aurka gauzatzen den Indarkeriaren Arloko Neurriei buruzko Osoko Lege Organikoaren Aurreproiektuak eskubide ekonomiko, osoko giza-laguntza, babes instituzionaleko eta abar. multzo bat aurreikusten du tratatu txarrak jaso dituen emakumearentzat, eta honegatik merezi du Lege Organiko honek txalo bat, alde batera utzi gabe, dudarik gabe dituen huts teknikoak eta arazorik gabe leunduak izan daitezkeenak iter legislatiboan. Ahalegindu da, bestalde, faltasua den mezua bat zabaltzen, bakuna eta asmo onik ez duena hain zuzen ere: zigor-arloko eskubide baten sorkuntza



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

gizonezkoentzat eta epaitegi batzuen sorkuntza emakumeentzat eta zigor-arloko eta zibileko prozeduren sekulako nahasketa bat.

Aurreproiektuaren 1go 2. artikulua: “Lege honen arabera, emakumean gauzatutako indarkeria diskriminazioa, ezberdintasuna eta emakumeen gain gizonek boterea duten harreman horiek mantentzeko tresna bezala erabiltzen denean izango da. Indarkeria fisiko eta psikologikoa barne hartzen ditu, hala nola askatasun sexualari erasoak, mehatxuak, bortxaketak edo bai bizitza publikoan nahiz pribatuan askatasunaren gabezia arbitrarioa ematean, arriskua suposatzen duen lehen faktorea emakumea izatea denean”.

Aipatutako manuaren idazketa ez da egokia eta Lege honen aplikazio esparrua behar bezala zehazten duen ikazketa bat aurkitu beharra dago, Lege hau ez dago emakumeentzat pentsaturik, baizik eta gizakiarekiko mespretxuzko indarkeria baten biktima diren emakumeen babeserako -bertan neskatoak barne sartu beharko litzatezke-. Mespretxuzko indarkeria honek pertsona baten izaera objektu batera murrizten du, fardel bat balitz, gauza soil bat balitz bezala, pertsona aske bezala bere baliogabetzera darama, azken finean bere giza-duintasunaren negatiboa, jarreraren errepresioa eta biktimen babesa emakumea eskubiderik ez duen ondasun edo ondare bat izango litzatekeen ideia batekin, guzti hau gaur egun oraindik bizirik irauten duen historia tribal bibliko eta feudal baten jarriotik eta migrazio lekualdaketen ondorioz gehitzen doana. Azken finean, Lege honekin lortu nahi dena da, alde batetik, kemenezko gaitzespena, ez gizon guztien aldetik, baitzik eta gizakia izateagatik emakumeari, hauetako batzuk iadanik bizitza eta guzti galtzen dute bidean, dagokion askatasun eta duintasun kuota lortzea galarazteko jarrera tipikoak burutzen dituzten gizon haien aldetik eta beste aldetik, biktimei beharrezko zerbitzuak erraztea, beraien pertsonalitatea askatasunez



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

garatzea lortu ahal izan dezaten.

1go artikulua ukatzea eta Zioen Azalpenean barne sartzeko asmoa, Legearen helburua finkatzen duela eta laguntza neurriak oinarritzeko balio duela ez ulertzea da, emakumeen aurkako indarkeria arloko Epaitegien eskumen esparrua, baizik eta tipo penalak mugatzen dituela, dudarik ez, abilezia gabe 1go artikulua 2. ataleko azken koma-arteak adierazten duen bezala. Ez da bide zuzenetik aldentzen ezta ere eskumen esparrua “arriskua suposatzen duen lehen faktorea emakumea izatea denean” finkatzea, giza errealitateak erakusten du emakumea tradizio, erlijioaren bitartez (erlijioak direnak) kontu handiz ehundutako armiarma-sare batean harrapatutako emakumearen tradiziozko arketipo bat existitzen dela, hau, bestearekiko zerbitzuaren ideia baten bitartez enbuitua, eta zeinentzat bikote erlazioa eta ama-seme-alaba harremana ia guztia dena. Arketipo honen kontra erakunde feministak eta emakumearen duintasunaren korrante gogorrek ekintzen dira. Bi indarren artean tentsio bat sortzen da, alde batetik matxinatzen diren emakumeek eskubide egarria dute eta beraien laguntzaren alde justizia deitzen dute; beste aldetik, barkamenak daraman erru-sentimendua. Gizonezkoek, matxinatzen diren emakumeak egoki iruditzen zaien moduan zuzentzen dituzte nahiz eta matxinada hori epela izan: fisiko eta sexualki erasotzen dituzte, iraintzen dituzte eta hobe iruditzen zaien moduan erabiltzen dituzte eta hiltzen dituzte baita. Eta hau da azken finean, Legeak aipatzen duen emakumea izatearen arriskua.

Aurretik esandako guztitik erraz ondorioztatzen da 1go artikulua izatea eta bertan behera ez uzteko beharra baizik eta soilik bere idazketa hobetzearen beharra.



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Deigarria gertatzen da, bai txostenean baita boto partikularrean ere, definizio barruan intentziodun elementuaren sarrera desegokiari kritika, hurrengo hau baieztatuz: “asmo horren frogaketak hurrengo kasu zehatzean arazoak ekarriko ditu” zeren eta “egiten dena emakumearen aurkako edozein eraso asmo horiek lortzeko edo helburu horiekin burutzen direla dioen arauzko presuntzio hori buru izanik datorrela hartzen bada, egile zigor-arloko zuzenbide bat berregiten ari da eta organiko-judizialean, jurisdikzio berezien sistema batera itzultzen ari da” (sic). Txostenaren erretorika guztian, 34 eta 59. orrietatik, aurretik azaldutakoa bakarrik ez da alde batera uzten baizik eta babes gabeko baldintzak ez dira sumatzen baizik eta frogatu behar dira, bai kontuan hartzen dituen tipo penala asetzeko, bai dagokion larrigarritasuna aintzat hartzeko. Ahazten da baita, jarrera tipikoa burutzen duenaren asmo edo helburua ez dela ahozko epaian bilatu beharreko zerbait -zentsugabekeriaz baieztatzen den bezala-. Jakina, horrela egin beharra dago hori exijitzen duen tipo penalak epai kondenatzaile bat emateko. Baina asmo edo intentzio hori kontuan hartu beharra dago iadanik ikerketen hasieran zein prozedura jarreitu behar den finkatzeko: sumarioa, prozedura laburtua, zinpekoen epaimahaiko prozedura eta abar, zein den epaitze-organoa: Zinpekoen Epaimahaia, Probintzia Auzitegia edo Zigor-arloko Epaitegia, Auzitegi Nazionala eta Nazioarteko Zigor-arloko Epaitegia barne eta abar... Puntu honetan erasoak harridura eragiten du guztiok ezagutzen dugun, edo ezagutu beharko genukeen Zigor Kodea tipikotasunaren barruan sartzen diren asmo edo helburuak dituzten delituz josia dagoenean eta intentzio edo helburuak bat edo beste izan, tipo penala aldatzen da eta baita zigorra ere. Ad exemplum, sakon azaltzeko asmorik gabe, hurrengoak:

a).- 607.1 artikulua (genodizio delituak) “Talde nazional bat, etnikoa, arrazakoa edo erlijiosoa guztiz edo partzialki deuseztatzeko ASMOAREKIN





## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

ondorengo hauetariko bat edo beste burutuko luketenek: 1go - ...hauen taldekideren bat hilko balute, 15etik 20ra urte bitarteko espetxealdi zigorrarekin, 2. - hauen taldekideren bat sexualki eraso edo 149. artikuluan kalterik eragitean 15etik 20ra urte bitarteko espetxealdi zigorrarekin 3. - 8tik 15ra urte bitarteko espetxealdiarekin, taldea edo taldeko edozein kide, beraien bizitza arriskuan jarri edo beraien osasuna era larri batean asaldatzen dituzten baldintzen eraginpean jarriko balituzte, edo aipatutako pertsona berdin hauei 150. artikuluan jasotako kalteren bat sortzean 4. - Zigor berdinarekin, taldea edo taldeko kideen derrigorrezko lekualdaketak emango balira, beraien bizitza modua edo ugalketa galeraztera zuzendutako edozein neurri hartuko balute edo baita pertsonak talde batetik beste batera indarrez lekualdatuko balituzte. 5. - 4tik 8ra urte bitarteko espetxealdiaz, atal honetako 2. edo 3. zenbakietan adierazitako beste edozein lesio edo kalte ezberdin emango balitz.

Begi bistakoa dena aztertu dezagun, asmoak tipo penala definitzen duela, zigorrak era sakon batean handitzen dituela (konparaketa egin beharra dago asmo hau izan gabe gizahilketarako aurrez ikusten diren zigorrekin, lesioekin eta abar) baita instruktorearen eta epaitze-organoaren eskumena, gehiago esatea dago oraindik, Nazioarteko Zigor-arloko Epaitegiaren eskumen esparruan sartu daitekeela.

b) 598. artikulua, “Atzerriko potentzia bat faboratzeko ASMORIK GABE, legalki gordetako edo sekretu litzatekeen segurtasun nazionalarekin edo defentsa nazionalarekin erlazionatutako informazioa eskuratu, ezagutzera eman, faltsutu edo gauzaez bihurtuko lukeenak”. Asmoa existituko balitz, zigorra askoz larriagoa izango litzateke eta epaitze-organoa beste bat.



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

c) 584. artikulua, “Atzerriko potentzia bat, Nazioarteko elkarte edo erakunde bat faboratzeko ASMOAREKIN, legalki gordetako edo sekretu litzatekeen segurtasun nazionalarekin edo defentsa nazionalarekin erlazionatutako informazioa eskuratu, ezagutzera eman, faltsutu edo gauzaez bihurtuko lukeen espainola, traidore bezala zigortua izango da eta 6tik 12ra urte bitarteko espetxealdiko-zigorra izango du”. Ikusi hau espainola denarentzat dela, zeren eta atzerritarrari graduan azpiko zigorra dagokio.

d) 571. artikulua “HELBURUTZAT antolamendu konstituzionala asaldatzea edo bake publikoa larriki aldatzea eta 346 eta 351. artikuluetan tipifikatutako kalte handidun edo sute delituak burutzen duten banda armatu, erakunde eta taldeetan hauen zerbitzura jokatu eta kolaboratzen duten kide direnak, 15etik 20ra urte bitarteko espetxealdi-zigorrarekin zigortuak izango dira...”. Helburuagatik ematen den zigorraren larriagotzea kalte handidun edo sute delituen aurrean, nabaria da.

e) 557. artikulua, “6 hilabetetik 3 urtetara bitarteko espetxealdi-zigorrarekin izango dira zigortuak, taldean jarduten direnak eta bake publikoaren kontra egitea HELBURUTZAT dutenak, antolamendu publikoa asaldatzen dutenak pertsonen kalte eginez edo jabetzatan gaitzak sortuz bide publikoak edo hauen sarbideak oztopatuz ... eta abar... Helburuak zigorra handitzen du eta Kale Borrokako gure gazteen gau eroen kaleko iskanbiletatik mugatzea baimentzen du, egitate objektibo berdina Epaite Zentral baten bitartez bideratua izan ahal da eta Auzitegi Nazionalaren Zigor-arloko Salaren bitartez epaitua izan edo egitateak burutu diren tokiko dagokion organo judizialen bitartez. Behin eta berriz azpimarratzen dugu helburua, asmoa, xedea balio-judizio batean aztertua izan behar dela, prozeduraren hasiera berean, okerra bilakatu daitekeelarik.



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Azkenik, ez dago inolako dudarik, delituaren subjektu pasiboaren zenbait ezaugarri eta subjektu aktiboaren zenbait helburuek 510. artikuluko eta Zigor Kodeako epaien tipo penalak mugatzen dituzte, “Oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen jarduteari buruzko delituen gainean” izenpe esanguratsu honen azpian.

Aurreko guztiari, 22. artikuluko 4. inguruabar astungarria gehitu behar diogu, non delitua, BIKTIMAREN.... BERE SEXUAREN.... ARRAZOI arrazizta, antisemita edo ideologiari, erlijioari edo sinismenei lotutako beste era bateko diskriminazioa dela eta burutzen dela dio.

Bukatzeko eta azalpena horren luzeegia ez egiteko, 485 eta 486. artikulua aipatuko ditugu non gizahilketa, erailketa edo lesioen biktima Erregea denean edo honen edozein aurreko edo ondorengoak direla, Erregina ezkontidea, Erreginaren ezkontidea, Erregeordea nahiz eta Erregeordetzako kideren bat, zigorra era nabarmen batean larriagotzen den.

### III

## LEGE AURREPROIEKTUKO TESTUAREN AZTERKETAK

### 1.- Zioen Azalpenaren gainean.

Jakina denez, Lege baten Zioen Azalpenak bere helmena edo garrantzia ezagutzeko orduan garrantzia dauka baina baita ere arau juridikoaren interpretazioa errazteko orduan, zeren eta Kode Zibilaren 3. artikulua arabera, arauak, duten hitzen berezko zentzuan interpretatzen dira, testuinguruarekin erlazioan, aurrekari historiko eta legislatiboekin eta gizarte errealitatearekin eta



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

eragina duten denborari lotuak, bereziki haien espiritu eta helburuari lotuak. Hau dela eta, beharrezkoa egiten da Aurreproiektuaren Zioen Azalpena gainetik aztertzea, Kontseilu honen gogoetaren eraginpean jarria, bereziki bere I eta II. atalei dagokienez eta III. atalaren azken zatia dagokionez.

Erreformaren beharra justifikatzeko ahalegin nabarmen bat egin dela egia den bezala, deigarria da, bere parrafo batzuen azalpen-argitasun eskasa, irakurketa oztopatzen duten kontzeptuen errepikapen eta nahasketa, eta aldi berean konstituzioko Arauei eta gainontzeko antolamenduaren aipamen eskas bat egiten zaiela, azken batean, horrenbeste garrantzia duen Lege baten aldarrikapena justifikatzen dutenak, kontuan hartu behar izanik, konstituzio manuen eta printzipioen aipuak, berezko Legea legitimatzen duen oinarria osatzen duela eta bera aplikatzeko orduan, interpretea bideratzera laguntzen duela.

Ez dago inolako eragozpenik jartzea III. atalari, berau Legearen edukiaren laburpenari buruzkoa. Bestalde, *“tradizio-juridiko espainolarekin bat, instrukzioko epaileen espezializazio formula baten alde egin dela, zigor-arlo antolamenduaren barne, Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiak sortuz eta antolamendu jurisdikzional berri baten sorketaren aukera edo arlo zibileko epaileek zigor-arloko eskumenen onarpena alde batean utziz”* baieztapenari dagokionez, ez da harrizkoa legegilearen aukera, zeren eta tradizio-juridiko espainolean beti izan da Instrukzioko Lehen Auzialdiko Epailearen irudia, orain dela hamarkada gutxi batzuk arte, bera, maiz, barruti judicial askotan bakarra, eta zibil-arloko eskumenak izan dituenak Lehen Auzialdiko Epaille bezala eta zigor-arloko eskumenak ere izan dituenak Instrukzioko Epaille gisa.

Zioen Azalpenaren azken parrafoan, lan baldintzetan gizon eta emakumeen



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

arteko berdintasun tratuari buruzko Europear Parlamentu eta Kontseiluaren 2002/73/EKko Direktibaren transposiziorako Azken Xedapen baten barne sartzea bidezkotzen da, guztizko era batean, sexu-jazarpenaren aurrean babesa gerturatzeko asmoz, ulerturik, nahiz eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptu orokorrean sartzeko aukera eduki ahal izan bere zabaltasun handiak, Erkidegoko Direktibek definitzen duten bezala, tratamendu berezi bat gomendatzen duela. Behaketa honi ez legoke inolako eragozpenik jarri behar nahiz eta Direktiba bera izan Estatu kideentzat betebeharrezkoa den transposizio epea ezartzen duena, alde batera utzi gabe kasu honetan Espainiako erreinuak aipatutako epea mozteko aukera izan dezakeela; hala eta guztiz ere, manuaren indar eraginkorra oso eztabaidatua izango litzateke zeren eta, kasua edozein izanik, soilik betebehar bat inposatzen dio legegile berari. Hamahirugarren Azken Xedapenak Direktibaren transposiziorako benetan epe bat ezartzen ez duenez, baizik eta *“aurrean dagoen Lege Organikoa indarrean sartzetik zenbatzen hasi beharreko sei hilabete”*ko epe bat Direktibaren transposiziorako Lege Proiektu bat lantzeko, orain informatzen denez Lege Organikoaren vacatio legis denboraldia sei hilabetekoa bada (Hamaseigarren Azken Xedapena), noski, Estatuko Aldizkari Ofizialean bere argitalpenetik zenbatzen hasita, transposizio Lege-Proiektua egiteko epea urte betekoa da, BOEan Lege Organikoaren argitalpenetik. Baina honek ez du esan nahi Direktiba urte beteko epe horretan hain zuzen ere tokiz aldatu beharko dela, zeren eta azken finean Direktibak berak, bere 2.1 artikuluan Estatu kide guztiak transposizioa beranduen 2005eko urriak 5ean egitera behartzen ditu, hau dela eta Azken Xedapeneko hitzaurrearen egokitasuna berriz ere hausnartzea legoke, zeren eta Direktiba beragatik Espainia data horretan transposizio Legea egina izatera behartua dago, ziurrenik Azken Xedapenaren aurreikuspenak bete baino lehen lortuko den data berau, Legearen parlamentuzko izapidetzaren beharra dela eta.



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

### 2.- Sentsibilizazio neurriak.

Izenpetzen dugun bokalok, Legean sartutako sentsibilizazio neurriekin bat gaude eta positiboki baloratzen ditugu eta, izaera orokor batekin hauei buruz informatzeko eskumenik izan ez arren, beste organo konstituzional batzuekin lanean elkar aritzeko nahi tinkoak, testua hobeagoa izan dadin laguntzeko gogoetaren bat egitera behartzen du, prozeduren gainean bere aplikagarritasun eraginkorrari eta eraginari buruz dagokionez.

Positiboki baloratzen da hezkuntza sistema barruan gatazken ebazpen baketsurako prestakuntza berezi bat sartu ahal izateko egiten den ahalegina eta sexuen berdintasun osoa galarazten duten oztopoen ezabapena, hala nola, oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetuan prestakuntza eta elkarren arteko bizitza demokratikoaren oinarrien barruan tolerantzia eta askatasun jardutean prestakuntza. Emakumeen aurkako indarkeriaren erazteak heziketa neurrien hartzea behartzen du, sexuen arteko berdintasuna sustatuz eta finkatutako rol sozialak deuseztatuz. Giza-sentsibilizazioa eta eguneroko bizitzan emakumeak duen paperaren garrantzia bultzatzea funtsezkoa da bere benetako irudia eratzeko, sexista den kulturarekin bukatu beharra egonik, zeinek berarekin batera otzantasuna eta menpekotasuna bezalako ezaugarriak ematen zaizkion emakumearekiko gizonak, bereziki ezkontza barruan edo bikoteko elkar-bizitzan, duen nagusitasun zentzua darama. Arazo honetan jardun behar duen aldaketaren giltzarria, firma batean eta hezkuntza neurrien eraginkortasun osoaren apostu irmoan dago.

Horrela, deigarri gertatzen da, emakumearen duintasunaren babes topatzen aritzean, hau Konstituzioko 10. artikuluan eta nazioarteko testuetan onartua, soilik



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

titularitate publikoa duten komunikabideei gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren babes eta zaintzaren arduraren beharra inposatzea, beraien arteko legez kanpoko edozein diskriminazio mota eragotziz. Egia da manua funtsezkoa ez bezala kontsideratu ahal dela, zeren eta partikular eta botere publiko guztiak eskubide eta askatasunen errespetura eta babesera behartuak daude, horrela Konstituzioan eta gainontzeko antolamendu juridikoan sagaratu egoteagatik, baina aipatu dugun 9a bezalako artikulua bat sartzen bada, ez da oso ondo ulertzen gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren babes eta zaintza orokorrean edozein komunikabideri eskatu ezin izatearen zergatia, kontuan hartu gabe iadanik existitzen diren legezko bideetan jarrera diskriminatzaileak jazarri ahal daitezela.

Osasun esparruan eta 27. artikulua lankidetzaren planei buruz ezartzen duena alde batera utzi gabe, iadanik existitzen diren eta Estatuko Osasun Sistemaren Lurralde arteko Kontseiluak onartuak dauden normalizatutako osasun protokoloen aplikazioa bultzatzea beharrezkoa litzateke, non osasun-langileek emakumeen aurkako indarkeriaren antzemate goiztiarraren ezarpena zehatz eta doi jasota geratzen den, biktimei salaketa errazteko orduan aparteko garrantzia izan dezaketen protokoloak eta organo jurisdikzional eta lankidetzako taldeei indarkeria egiaztatu lehen seinale horien balorazioa.

### 3.- Indarkeriaren biktime izan diren emakumeen eskubideak

Aurreproiektuaren 12. artikulua inolako arauzko edukirik ez duen printzipioen deklarazio soil bat besterik ez dauka, nahiz eta bere izenburua “*biktimen eskubideen bermea*” izan. Hau dela eta Zioen Azalpenaren barnean sartzea proposatzen da.



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Manua positiboki baloratuz 13. artikuluan onartzen den informazioa jasotzeko eskubideari buruz, gomendagarria izango litzateke 15. artikuluekin erlazioan jartzea, azken hau laguntza juridikoari buruzkoa, ekintza prozesalen hasiera alde aurreko informazio egokiarekin eta aholkularitza juridikoarekin espresuki bermatzeko helburuaz, emakumearen aurkako edo etxeko indarkeria gaian aholkularitza juridikoan espezializatutako zerbitzuen abokatuen bitartez eta abokatuen elkargo ezberdinekin sinatutako edo sinatu ahal izango diren hitzarmenen arabera ezartzen diren txanden bitartez emango litzatekeen aholkularitza berau, informazio hori gainera egunak duen 24 orduetan zehar bermatuz.

14. artikuluan, emakumearen aldeko arreta, emergentzia, laguntza eta osoko suspertzerako gizarte zerbitzuen legitimazio berezi bat ezartzen da, epailetik beharrezkotzat dituen premiazko neurriak eskatzeko. Alde batetik, Estatuaren administrazioaren barruan gizarte zerbitzu hauen egitura, osaera eta inkardinazioa zein izango denaren gainean zehaztasun gabezia bat ikusten da, bere legitimazioa justifikatzeko funtsezkoa dena. Beste alde batetik, bere ahalmena hasiera batean mugagabea da zeren eta ez du epailetik eskatu dezakeen neurri zehatzak zeintzuk diren zehazten nahiz eta dudarik ez dago aurreikuspena orokorrean zuzena dela, emakumeen aurkako indarkeriak duen garrantzia soziala dela eta, eta egoera horiek epailearen ezagutzapean jartzeko beharra dela eta, guztia, beharrezko diren neurriak hartzeko helburuarekin.

15. artikulua laguntza juridikoaz arduratzen da, bai Konstituzio espainolaren 119. artikuluekin bai Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa den urtarrilak 10eko 1/1996 Legearekin eta esparru estatalean nahiz eta autonomia mailan emandako





## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

garapen Arautegiekin erlazioan jarri beharreko manua berau. Bestalde, antolamendu juridikoaren batasuna eta koherentzia mantentzeko gomendagarria litzateke aipatutako 1/1996 Legearen erreformari ekitea, hitz egiten ari garen 15. artikulua erantsiz. Pausu garrantzitsu bat suposatzen du emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnek defentsarako eta doako ordezkartzarako eskubidea izatea, nahiz eta hau nahitaezkoa ez izan, eta beti ere baliabiderik ez duenean, parte den prozedura eta prozedura administratibo guztietan, halaber, jasandako indarkerian kausa zuzena edo zeharkakoa duten prozedura eta erreklamazio guztietan biktimaren defentsa letratutako zuzendaritza berdin batek hartzea. Hala eta guztiz ere 13. artikuluari buruz hitz egin denean esandakoarekin bat, gomendagarria litzateke, doako laguntza juridikoa ere edozein ekintza prozesalaren aurretiko informazioari luzatzea, profesionalen elkargoekin eta Administrazio Autonomikoekin bidezko diren hitzarmenen bidez. Era berean, manua Doako Laguntza Juridikoaren Legeko 21. artikuluari egindako aipamen batekin osatu beharra dago zeren eta emakumeen aurkako indarkeria duten kasu zehatz horietan da non organo judizialak defentsa eta ordezkartzako eskubideak berehalako era batean ziurtatzea askoz gehiago justifikatzen den, ez bakarrik salatua izandakoaren eskubideak, baizik eta biktimarenak ere eta guzti honen ondorioz, baldintzen eta kasuaren premiaren arabera arrazoizko ebazpen bat eman beharra dago, profesionalen elkargoei abokatuaren eta prokuradorearen behin-behineko izendapena eskatuz eta ondoren Legean aurrez ikusitakoaren arabera, eskaera bideratuz.

Positibotzat hartzen da Aurreproiektuko 16 eta 21. artikuluek jasotzen duten emakumezko langileak eta emakume funtzionarioak diren indarkeriaren biktimei ematen zaizkien lan eskubide eta gizarte segurantzaren eskubideen ematea, justifikatua egonik eskubide horien onarpena ziurtatzen dituzten baldintzen



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

konkurrentzia egiaztatzea biktimaren aldeko babes ordenarekin edo, horren ezean, Fiskaltzaren txostenetik, non salatzailea, emakumeen aurkako indarkeriaren biktima dela adierazten duten adierazgarri horien existentzia seinalatu beharko den, zeren eta Fiskaltzari dagokio, bere Estatutu Organikoaren arabera, legaltasunaren defentsa eta herritarren eskubideen defentsa eta biktimen babes prozesalaz arduratu beharko da, aurreikusitako mekanismoak laguntza eta sorospen eraginkorra jaso dezaten sustatuz. Kontuan hartu beharra dago neurrien hartzea, onartzen zaizkien eskubideen berehalako ondorioa, hauek eraginkorrak izatea nahi izanez gero, ahal den eta arinen hartu behar direla, hau dela eta, orokorrean ez da gomendagarria horren gainean erabaki judizial bati itxaron behar izatea. Hala nola, auzipetze-autoa edo ahozko judizioa hastea erabakitzen duen autoa izan daitekeen moduan, prozeduraren irekitze soilak, berak bakarrik, emakumeen aurkako indarkeria adierazgarrien existentzia adierazi gabe. Hala eta guztiz ere, premiazko izaera justifikatua ez duten kasuak egon daitezke eta kasu honetan ez dago zertan eragozpenik egon erabaki judizial bat baldintzen konkurrentziaren akreditazio elementu bat izateko, onartutako eskubideen onarpenean ondorioztatzen direnak zeren eta epaileak ezin du inolako txosten motarik igorri eta are gutxiago oraindik aurre-epaiketa inplikatzeko badute.

Aldeen arteko akordio ezagatik sortu ahal litzatezkeen arazoek konponbiderako formulak artikulazioa baloratu beharra legoke, hasiera batean aurreikusitako mugetatik harantz jarraitzen duen egoeratik eragindutako emakume langileen eskubideak modulatu edo zabaltzeko arbitraje judizial nolabaiteko tarte baten ematea, biktima den emakume langileari osoko legean onartutako eskubideen jardutea galarazteko, lanetik botatzea baliogabea izatearen aukera, enpresaren aldetik egindakoa berriz onartzeko beharrezkin, hala nola, emakume langile autonomo egoera duten biktimak babesteko sistema aukeren



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

gainean gogoeta egin.

Azkenik, akats mekanografiko sinple bat ikusten da 21. artikuluan, hau 17. artikulura igortzean, igorpen hori 18. artikulura izan beharko litzatekeelarik.

### 4.- Babes instituzionala

Positiboki baloratzen da babes instituzionala, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Gobernuaren Ordezkaritza baten eta Behatoki Nazional baten sorketaren bitartez, hala nola, estatuko segurtasun indar eta kidegoen unitate berezien sorketarako aurreikusitako neurriak.

25. artikuluekin zerikusian, Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiaren existentziari buruz atentzioa eman beharra dugu, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusi eta Justizia eta Lan eta Gizarte Gaien Ministerioek 2002ko irailaren 26an sinatutako Hitzarmenaren ondorio bezala iadanik sortua, Justizia Administrazioaren esparruan etxeko eta genero indarkeriaren aurkako prozesamendurako. Gaietan instituzio bakoitza bata bestearengatik banandurik garatzen zituzten jardueri eraginkortasuna emateko helburuekin sortu zen, justizia arloan eskumena duten Autonomia Erkidegoek eta Estatuko Fiskaltzak bere osaketa zabalduz, horrela, hiritarren oinarrizko eskubideen defentsa, bermea eta babesaren koordinaziorako printzipio konstituzionala betez. Bere sorketatik, Behatokiak oso lan garrantzitsua burutu du.

Behatokiak garatutako ekintza garrantzitsuenak, beste batzuen artean, ondorengo hauek dira:



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

1) Epailleek emandako Epai eta ebazpen judzialen jarraipen ikerketa lanak, Ganbera legegileek onartzen dituzten legeak zer nolako aplikazioa duten ezagutzeko eta erreforma legegileen eraginkortasuna ebaluatzeko helburua dutenak. 2) Etxeko indarkeria jasan duten biktimen babeserako Erregistro Nagusi baten sorketa, Babes Ordena erregulatzen duen uztailak 31ko 27/2003 Legean barne-sartua eta 355/2004 Errege Dekretuaren bidez onartua. 3) Arloan inplikaturako kolektibo eta elkarteekin Behatokiak eginiko bilerak. 4) Hedapen lanak batez ere epai, fiskal, abokatu, prokuradore, administrazio publiko, unibertsitate, elkarte, Arartekoaren, gizarte zerbitzuen eta abarren artean. 5) Babes Ordenaren Jarraipen Batzordearen sorketa Botere Judzialaren Kontseilu Nagusiko, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioko, Estatuko Fiskaltzako, Justizia gaietan eskumena duten Autonomia Erkidegoen ordezkariengatik, Justizia arloko Profesionalen Elkargoen eta Probintzien eta Udalerrien Federazioko ordezkariengatik osatua, Babes Ordenaren ezarpenerako garrantzia orokorreko protokoloen eta Epaille eta Auzitegi eta Administrazio Publikoen arteko koordinaziorako egoki diren tresnen lanketarako eskumenak dutenak. 6) Epaille eta Magistratuen prestakuntza, 2003. urtean batzar bat eta hiru ikastaro eta 2004. urtean mintegi bat burutu izanik.

Bokal sinatzaileek iadanik existitzen den Behatokiaren biziraupena egokitzen hartzen dute, jarduera esparruek ez daukatelako zertan bata bestearen gainean jarri beharrik zeren eta iadanik sortutakoak ez du emakumeen aurkako indarkeria heziketa-arloan ebaluatzen, ezta lan alorrean ezta funtzional-arloan ere, Justizia Administraziokoari mugatuz, jardute judizialarekin zerikusia duten datuen bilketaz arduratzen, estatistikak egiten eta Epaille eta Magistratuen prestakuntza zehatzaz arduratzen, bien arteko kooperazio formulen ezarpena alde batera utzi gabe. Izendapen berdina erabiltzean nahasketa bat gertatu ahal izango litzateke baina egia esateko Madrilgo Autonomia Erkidegoan iadanik existitzen da Etxeko



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Indarkeriaren aurkako beste Behatoki bat eta orain arte ez da inolako arazorik edo funtzioen gainjartzerik egon.

26. artikuluari dagokionez, begi bistakoa da administrazio ezberdinen arteko kooperazio edo elkarlana beharrezko egiten dela eta oso bereziki segurtasun indar eta kidegoekin, honen gainean kontuan hartu behar izanik, Jarraipen Batzordearen bitartez etxeko indarkeriaren aurkako biktimen babes Ordenaren ezarpenerako, Segurtasun Indar eta Kidegoen Jardute eta etxeko eta genero indarkeriaren arloko biktimen babeserako Organo Judizialekin Koordinazio Protokolo bat garatu dela, Protokolo bat hau, 2004ko ekainak 10eko sesioan Jarraipen Batzordeak onartua izan dena eta bere onarpenetik hilabete bateko epean indarrean sartuko dena.

Berdina esatea dago 27. artikulua gainean zeren eta ez dago zalantzarik emakumeen indarkeriaren aurkako borroka osokoa izan behar duela eta administrazio eta talde edo kolektibo guztiak ukitzen dituela, hau dela eta, elkarlan planak finkatuz soilik izan daiteke eraginkorra.

28. artikuluan finkatutako esparrua (Zigor Kodeko 148.4, 171.4 eta 172.2 artikulua) larregi txikia da eta 12. artikulua finkatzen duenera zabaldu beharko litzateke.

Behatoki honetan Estatuko Fiskaltza funtsezko atala da. Gobernuarekiko Ministerio Fiskalaren ahanztura, egoera zertxobait zentzugabe batzuetan ondorioztatzen da, adibide gisa Gizarte Lan eta Justizia Ministroek eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Etxeko Indarkeriaren arloko Behatoki baten sorketarako sinatutako Hitzarmen bat, alor honetan emandako Epaien jarraipenerako hain zuzen ere Fiskal Nagusiak ikusle soil bat bezala parte hartuz



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

nahiz eta berak zuzentzen duen Instituzioak lurralde osoan emandako Epai guztiak ezagutu, edo ezagutu beharko lituzke, zeren eta guztiak jakinarazten zaizkio, ez “behatzeko” baizik eta dagokien errekurtsioa aurkeztu dezan, edozein judizial galtze mota zuzenduz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, independentzia judizialaren oinarria betez, debekatua zaion zuzenketa hain zuzen ere. Are gehiago, Estatuko Fiskal Nagusia, horren izugarrizko materiala Fiskal espezializatuek aztertu ondoren, arlo honetan zigor-arloko jazarpenaren puntu ahulak zeintzuk diren ezagutzeko baldintza ezin hobekak ditu eta aldi berean Fiskal espezialista edo beste batzuei, hierarkia eta menpekotasun printzipioa betez, Epaien errekurtsioak aurkeztea exijitzeko bere kasuan, ikerlanean eta kautelazko neurrien eskakizunean arreta handiena ezartzea eta ematen diren izapideten ez betetzea edo betetze txepela zuzentzea.

Legegilea berriz ere Fiskaltza, kriminal politikaren funtsezko atal bat dela ahaztu da eta ari garen Legearen barruan zeregin prozesal urria eta baliabide eskasak ematen dizkio.

Prozedura Kriminalaren Legean, Fiskaltzari zigor-arloko ikerlanaren zuzendaritza emanez aldaketa bat eragiteko asmo politikoa kontuan hartuta, Etxeko Indarkeriaren aurkako Osoko Legea aditzera emandako aldaketaren hasierarako aprobetxatu behar da, Fiskaltzari Lege honen eremu mugatuan ikerketa eskumenak emanez, Adingabearen Legearekin bere momentuan egin zen bezala.

### 5.- Zigor-arloko Tutoretza

Puntu honetan desiragarria litzateke emakumeen aurkako jokaeren zigorketa



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

sistemako itxiera bezala egilea bila ari den helburu berezia gehitzea. Ez dugu ahaztu behar benetazko inflexio-puntua dela eta gizonak burutzen duenean delitua dela eta emakumeak burutzen duenean falta dela dioen kritikak gaintitzen dituen dela. Ez da egia; delitua, mehatxua edo bortxaketa ondorengo hau faboratzeko helburuaz ematen direnean izango da....

### **Idazketa posiblea:**

**29. artikulua.-** Mehatxuen aurkako babesa. 4 eta 5 bezala zenbakitutako bi atal gehitzen zaizkio Zigor-arloko Kodeari eta hurrengo idazketa hau izango dute:

4. **Diskriminazioa, ezberdintasuna eta gizonezkoek emakumeen gain duten botere harremanak FAVORATZEKO asmoarekin** bere emakumea dena edo izandakoa dena edo afektibitate harreman antzeko batekin berari lotua dagoen edo egona izandakoa nahiz eta elkarbizitzarik ez egon, modu arin batean mehatxatzen duena, sei hilabetetik urte bat bitarteko espetxealdi zigorrarekin zigortua izango da edo hogeita hamaikatik laurogei egun bitarteko komunitatearen mesederako lanekin eta edozein dela kasua ere, urte bat eta egun batetik hiru urte bitarteko armak eduki eta eramateko eskubidearen gabetzea, halaber, Epaile eta Auzitegiak adingabe edo ezgaiaren intereserako horrela egoki uste duenean, guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo abegi egikaritzeko desgaitasuna berezia bost urterarte. Hala eta guztiz ere, aurreko parrafoan aurreikusitakoa, epaian arrazoituz, Epaile edo Auzitegiak, egilearen egoera pertsonalen arabera eta egitatearen jardutean bildutakoaren arabera, graduan zigor baxuagoa dena inposatu ahal izango du.

5. **Diskriminazioa, ezberdintasuna eta gizonezkoek emakumeen gain duten botere harremanak FAVORATZEKO asmoarekin** arma edo beste tresna



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

arriskutsuekin 173.2 artikulua aipatzen dituen edozein pertsona, artikulua honen aurreko atalean azaldutakoak alde batera utzita, modu arin batean mehatxatzen duena, hiru hilabetetik urte bat bitarteko espetxealdi zigorrarekin zigortua izango da edo hogeita hamaikatik laurogei egun bitarteko komunitatearen mesederako lanekin eta edozein dela kasua ere, urte batetik hiru urte bitarteko armak eduki eta eramateko eskubidearen gabetzea, halaber, Epaile eta Auzitegiak adingabe edo ezgaiaren intereserako horrela egoki uste duenean, guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo abegi egikaritzeko desgaiakuntza berezia sei hilabetetik hiru urterarte. Zigorrak beraien erditik gorakoan inposatuko dira delitua adingabeen aurrean burutzen denean, edo elkarbizitza ematen den etxean edo biktimaren bizilekuan ematen bada edo Kode honetako 48. artikulua jasotzen dituen zigorretatik bat haustean burutzen denean edo izaera berdina duen kautelazko edo segurtasun neurri bat haustean ematen bada.

**30. artikulua.-** Bortxaketen aurkako babesa. Zigor Kodeko 172. artikulua gaur egungo edukia 1 atala bezala zenbakitua geratzen da eta aipatutako artikuluari ondorengo idazketa hau duen 2. atal bat gehitzen zaio: “2.- **Diskriminazioa, ezberdintasuna eta gizonezkoek emakumeen gain duten botere harremanak FAVORATZEKO asmoarekin** bere emakumea dena edo izandakoa dena edo afektibitate harreman antzeko batekin berari lotua dagoen edo egona izandakoa nahiz eta elkarbizitzarik ez egon, modu arin batean mehatxatzen duena, sei hilabetetik urte bat bitarteko espetxealdi zigorrarekin zigortua izango da edo hogeita hamaikatik laurogei egun bitarteko komunitatearen mesederako lanekin eta edozein dela kasua ere, urte bat eta egun batetik hiru urte bitarteko armak eduki eta eramateko eskubidearen gabetzea, halaber, Epaile eta Auzitegiak adingabe edo ezgaiaren intereserako horrela egoki uste duenean, guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo abegi egikaritzeko desgaiakuntza berezia bost





## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

urterarte. Hala eta guztiz ere, aurreko parrafoan aurreikusitakoa, epaian arrazoituz, Epaile edo Auzitegiak, egilearen egoera pertsonalen arabera eta egitatearen jardutean bildutakoaren arabera, graduan zigor baxuagoa dena inposatu ahal izango du”.

**Hamargarren Azken Xedapena.**- Zigor Kodearen aldaketa. Bat. Zigor Kodeko 148. artikulua aldatzen da, ondorengo era honetan idatzia geratzen dena: “Aurreko artikuluko 1 atalean aurreikusitako lesioak bitik bost urte bitarteko espetxealdiko zigorrarekin zigortuak ahal izango dira, gauzatutako emaitzaren eta eragindako arriskuaren arabera: 1go Erasoan, lesionatuaren bizitza edo osasun fisiko edo psikikorako konkretuki arriskutsuak diren armak, tresnak, objektuak, baliabideak, metodo edo moduak erabili izan badira. 2. Ankerkeria bitartekotzat egon balitz. 3. Biktimak hamabi urte baino gutxiago balitu edo ezgaia balitz. 4. **Lesioak diskriminazioa, ezberdintasuna eta gizonezkoek emakumeen gain duten botere harremanak faboratzeko asmoarekin gauzatuak izan balira** eta biktima, egilearen emakumea dena edo izandakoa dena edo afektibitate harreman antzeko batekin berari lotua dagoen edo egona izandakoa balitz, nahiz eta elkarbizitzarik ez egon”.

### 6.- Babes judiziala

Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegien sorketari buruzko txostenean horren kritikak den puntuari dagokionez, 52 eta 59. orrietan adierazitakoak harridura eragiten du, hain zuzen ere hauen edukia luzeegia zein desegokia izateagatik, argudiaketa gezurtia da eta, dudarik gabe, ez da beste aldi batzuetan aipatu. Baieztatzen da horrela, “zigor-arloko jurisdikzio ordenaren



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Epaileak zigor-arloko gaiak bakarrik ezagutzen dituela eta soilik epaitu aurreko arazo bezala zigor-arloko prozesuan eragina duen beste jurisdikzio ordena baten berezko diren gaietan eta Aurreproiektua zakar kritikatzan du“ zeren eta urrunago doa emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Epaitegia deitutako zigor-arloko organoari arlo zibileko jurisdikzio ordenaren berezko gaiak direnak egozterakoan, ez izaera kaltegarriaz, baizik eta lehentasunezkoaz”, eta hau jurisdikzio nahasketa bat bezala hartzen da, baieztapen hau posible izanik aurretik adierazitakoak baino harrigarriagoa da. Bada Zigor-arloko Prozesuan, iadanik XIX. Mendetik aurrera, biktimaren babes eraginkor bat lortzeko asmoarekin ekintzen pilaketa heterogeneo bat -zibila eta penala. Ekintza heterogeneo hauen pilaketa, ope legis gauzatzen da, horrela Prozedura Kriminalaren Legeko 112. artikulua ezartzen du “akzio penala bakarrik gauzatua, zibila ere erabilitzat ulertuko dela, minduak edo kaltetuak epai kriminala bukatu ondoren gauzatzeko asmoarekin espresuki uko egin edo gordeta izango balu, egoera hori emateko aukera egongo balitz”; lege-testu berdinen 110. artikulua “delitu edo falta bategatik kaltetuak izan direnak kausa barruan parte izatera eta, komeni zaien eanean, bidezkoak diren alor zibileko eta zigor-arloko ekintzak gauzatzera” baimentzen ditu. Ez dirudi, beste alde batetik, biktimaren babesaren onerako, legegilearen ustez zigor-arloko prozesuari beste alor zibileko ekintza batzuk gehitzea komenigarria izango balitz, gaitzespen berezirik merezi izatea, batez ere kontuan izanik, txosten honetan kontu handiz gorde diren XIX. mendeko aurrekariak.

Hau idazten ari denak ez du ezagutzen, Lege Konkurtsalari buruzko Kontseiluak bideratutako txostenaren kausaz, irrigarriki jurisdikzioen nahasketa deituko diogun honi buruz eztabaidatu den edo ez, dudarik izan gabe, eztabaida egon bada txostenean ez da irudikatu, zeren eta ekintza legislatiboaren azertua nabarmendu da. Uztailak 9ko 8/2003 Lege Organikoak Botere Judizialaren Lege



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Organikoa aldatzen du eta hemen arduratzen gaituen gaian, 86. ter artikulua berrian, merkataritza arloko Epaitegiei “konkurtsopekoa enplegu-emailea denean, lan kontratuen iraungipen, aldaketa edo etendura helburu bezala duten gizarte ekintzak ezagutzeko” eskumena ematen dio, “hala nola goi-zuzendaritzako kontratuen etendura edo iraungipena, neurri hauek kontratu hauetan aplikagarria den hitzarmen kolektiboan ezarritako baldintzen aldaketa suposatzen dutenean alde batera utzi gabe, langileen ordezkarien akordioa beharko da. Gai hauen epaitzean eta Lege Konkurtsalaren arau zehatzen aplikazioa alde batera utzi gabe, kontuan hartu beharko dira arauzko estatutu antolamendua eta lan arloko prozesua inspiratzen dituzten oinarriak”. Aipatu den nahasketa horrek 2003ko uztailak 9ko Lege Konkurtsalaren 197.7 artikuluan jarraitzen du eta zera ezartzen du: “konkurtsuaren Epaileari dagokion gizarte arloko ekintzei buruzko ezagutzaren gaineko intzidente konkurtsala ebazten duen epaiaren aurka, Lan Arloko Prozeduraren Legean aurreikusten diren erregutze-errekurtso eta bestelako errekurtsoak barne sartuko dira, hauek, konkurtsuaren izapidetzaren edo dituen pieza bakar baten gainean ere inolako eteteko ondoriorik izan gabe”. Beste alde batetik, jurisdikzioen bat egitearekin jarraituz, aipatutako Lege Konkurtsalaren Hamabosgarren Azken Xedapenak, apirilak 7ko 2/95 Legegintza Errege Dekretu bitartez onartutako Lan Arloko Prozeduraren Legeko bat egindako testua aldatzen du eta ondoren adierazten den era honetan idatzia geratzen da: “Justizia Auzitegi Nagusietako Lan arloko Salek beraien mugabarruko Lan Arloko Epaitegiek hartutako erabakien aurka jartzen diren erregutze-errekurtsoak ezagutuko dituzte, baita ere bere mugabarruan aurkitzen diren Merkataritza arloko epaileek eman ditzazketen Auto eta Epaiaketen aurka doaztenak eta lan eskubidea eragintzen dutenak eta 189. artikuluari 5. parrafo bat gehitzen zaio, ondoren ezartzen den idazketa hau duena: “Merkataritza arloko Epaitegiek prozesu konkurtsalean ematen dituzten Auto edo Epaiak eta lan izaera duten gaiei irtenbidea aurkitzen



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

dizkietenak”.

Legearen V. Tituluak manu multzo bat du, hauetatik gehienak arlo prozesal izaeradunak, “ohiko Epaile”aren eskumenari buruzko tradiziozko irizpideak aldatuz, izaera sozial eta kulturalen zailtasunak konpentsatzeko aldatzen dituztenak, Oinarrizko Eskubidearen jardutean babes judizial eragingarriari dagokionez, indarkeria jokaeren biktima izan diren emakumeek maiz jasaten dituztenak.

Lau dira honen gainean aipatzen ari garen Legeak barne sartzen dituen aldaketa nagusiak:

- Bere eskumen arauen bitartez zuzendutako “jurisdikzio” berezi baten sorketa (33. artikulua).
- Eskumen objetiboaren arauen aldaketa, “jurisdikzio berezi” berri honi lotura jakin bat gauzatzen zaion alor-zibileko prozesuentzat vis atractiva bat emanez (38. artikulua).
- Lurraldearen arabeko eskumenaren tradiziozko arauen aldaketa (39. artikulua).
- Biktimen babes eta segurtasunerako izaera judiziala duten arau multzo baten ezarpena (41/49 artikulua).

Neurri multzo honek, aipatua geratu den bezala, Oinarrizko Eskubide baten gauzatzearekin erlazioan tradiziozko irizpideen aldaketa bat suposatzen duenez, eraginkorra den Babes Judizialerako Eskubidea, aldez aurreko izaeraz, aurreikuspen arau horiek zer nolako neurrian Konstituzioaren 14. artikulua galarazten duen diskriminazio bat irudikatzen duten edo, alderantziz, Konstituzioarekin guztiz bat etortzen diren aztertzen hasiko litzateke. Honi



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

dagokionez, ezin daiteke ukatu nahi dena ezberdina den gizarte errealitate baten aurka borrokatzea dela, emakumeen duintasuna modu askoz eraginkorrago batean babestea, hasierako ezberdintasunak existitzen direla kontuan izanik babes judizial eragingarria bermatzen duten bideak hartuz eta honi dagokionez, diogu, esateko aukera iadanik izan dugu aipatutako aldaketak justifikatzen dituela, aipatua ere izan den konstituzio-doktrinaren arabera.

Aurrelegegilea emakumeen aurkako indarkeriaren arloan espezializatutako epaitegiak sortzeko ideia hartzen du abiapuntutzat, familia, adingabe edo espetxeratuen zaintzarako iadanik badauden bezala. Ez datza jurisdikzio ordena bat edo ordenamenduaren adar bat eratzean, giza-behar berezi bati erantzuten dion eta alor zibileko eskumenak dakarren zigor-arloko ordenaren barruko espezializazio bat gehitzea aukeratu izanean. Izendapena kontuan hartu gabe, aipatutako nazioarteko hitzarmenetan eta etxeko eta genero indarkeriaren aurkako Behatokiak lortutako eta aztertutako estatistika judizialen bitartez lortzen diren datuetan, beharrezko iruditzen da organo hauen sorketa, behintzat, gai kopuruak hala gomendatzen duen toki haietan, eta alde batera utzi gabe epaitegi batzuen birmoldaketa edo iada existitzen diren organo berrien eskumenen onarpena, berezkoekin bateragarri eginez. Banaketa, ondoren egin beharko da, dauden datuen arabera, Aurreproiektua laguntzen duen Memoria Ekonomikoan iada 21 epaitegi berrien aurreikuspena sartu izanik, hala nola iada existitzen direnen egokitzapenerako hornidura. Hauentzat beharrezkoa litzateke psikologo eta gizarte-laguntzaile batek osatutako jakintza alor anitzeko talde bat sortzea, egokitzapen beharra duten barruti judizialen kopurua 396koa izanik.

Lortu nahi dena organo jurisdikzionalen espezializazio handiago bat baldin bada eta era berean, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eskumena dutenek



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

emakume bakoitzak, eta azkenean familiak eta berarekin elkar-bizi direnek barrutik bizitzen duten arazoaren jarraipen oso bat egitea, beharrezkoa izatea posible litzateke espezializazioa proposatzea, edo behintzat, Zigor-arloko Epaitegi zehatz batzuek, materialen eskumena hartzea, zeren eta azken finean, arazo hauetako askok beraiek epaituko dituzte.

33. artikuluan Botere Judizialaren Lege Organikoari 87 ter artikulua bat gehitzen zaio, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiei zigor-arloko eta alor zibileko eskumena emateko eta Aurreproiektuaren 1go artikuluan egindako hausnarketak berriz ere gogoratzeaz ahaztu gabe, komeni da zehaztapen batzuk egitea. Hauetariko lehena, eskumenen esparruan delitu batzuk sartzeari buruzkoa da, adibide gisa tortura delitua, zeintzuk teknikoki manuan barne sartutako delitu listarekin ez diren oso ondo bat etortzen, ulertu behar izanik, Aurreproiektuak zentzu zehatzean soilik osotasun moralaren kontra doazten delituei buruz ari izan nahi duela eta ez Zigor Kodeko II. Liburuko VII. Tituluak aipatzen dituen guztiei buruz. Ez dute bat egiten ezta ere indarkeriaz edo larderiez burututzen diren delitu guzti haiek zeren eta Legearen helburuarekin, indarkeria edo larderia izan duten delituek zer nolako erlazioa izan dezaketen zalantza planteatzen da, adibide gisa atzerriko hiritarren aurkako delituak direnak, berezko eskubidearen bidegabeko egitea, indarkeriaz edo larderiez egiten den lapurreta, estortsioa, legez kanpoko atxiloketak, kontzientzia eta erlijiozko sentimenduen askatasunaren aurka doazten delituak eta hildakoei errespetua.

Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epailen eskumenen artean biktimaren seme-alaben aurka, bai era zuzen edo zeharkako batean izan eta amaren egoerarekin lotura gordetzen duten einen, burututako delituengatik zigor-arloko erantzunkizuna exijitzeko prozesuen instrukzioa barne sartzearen



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

egokitasuna iradokitzen da, zeren eta ez dago dudarik seme-alabak maiz emakumeen aurkako indarkerian tresna bat bezala erabiliak direla, edozein dela kasua jasaten duten tratu txar psikologikoa alde batera utzi gabe, zeren eta indarkeria mota honek emakumearen eta bere seme-alaben ondorengo garapena baldintzapean jarriko dute, batzutan, familia barnean indarkeriaren betikotasunaren zergatia izan ahalik.

Era berdinean, emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaileen eskumenen artean, edozein motako delitu bideratzeko ahala berezko esparruaren barruan barne sartu beharko litzateke, berau aurreproiektuaren 1go artikuluan zehaztua, eta sartzen duen intentzio elementuaren gainean egindako behaketa alde batera utzita, eta zioen azalpenean azaldutakoarekin ados, baita ere bizitza publikoan eta ez soilik pribatuan sortzen direnenak, aurreproiektuko 33. artikuluan sartzen den BJLOaren 87 ter. 1 a) artikuluko interpretazio hertsia batean ulertu ahal litzatekeen moduan.

BJLOaren 87. artikuluko 2. atalaren legegintza teknika hobetu beharra dago, non *“alor zibileko ordenean ezagutu ahal izango duten”* espresioa erabiltzen da, eta ondorioz, epaile eta epaitegien esku ondoren banan-banan aipatzen diren gaien ezagutza erreal eta eraginkorra uzten duela ematen du. Banan-banan aipatzen diren gai guztien gainean xehetasunez gogoeta egin beharra dago, gai hauek begi bistakoa den alor zibileko edukia izanik, beti emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegien eskumenekoak behar dute izan, zeren eta batzuetan erreza izanik indarkeria jokaera batek garrantzia berezia duela pentsatzea, banantze edo dibortzio kasuetan edo seme-alaben guraso-ahalari edo zaintza jarduteari buruzko borroketan gertatu daitekeen bezala, beste batzuk oso urrun geratzen dira eta ez daukate inolako zerikusirik indarkeriarekin. Horrela, orokorrean, seme-alabatasun,



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

amatasun eta aitatasun, ezkontz gaietan erabakien eraginkortasun zibileko edo elizako erabakien onarpenaren eta 87 ter. 2 artikuluan b), d) eta h) letrak barne hartzean baiespen beharrari buruz hitzegiten dutenen eskumenen gain hartzea zalantzan jarri daiteke eta guztiz zehaztugabetzat hartzen da f) letrako erreferentzia “*familia garrantzia duten neurriei buruzkoa*”.

87. artikuluko 3. atalean, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileek alor zibileko ordenaren eskumena hartu ahal izateko batera eman edo elkartu behar diren baldintzak finkatzen dira. Manua, hala eta guztiz ere, osoa ez bezala hartzen da, ez delako inolako aurreikuspenik ezartzen honen gainean, salaketa edo auzi-jartzea izapidetzeko ez onartzea gertatuko balitz, edo largespen autoa emango balitz edo prozesuaren bukaera bestelako motaren bat emango balitz.

Azkenik, 4. atalak epaileak uzia ez onartzea aurreikusten du, eskumena duen organo judizialera igorritz, egitateek, “*begi bistakoa den modu batean*” emakumeen aurkako indarkeria espresio bat irudikatzen ez dutenean, ikaragarri orokorra eta etereoa den formula batean, Aurreproiektuaren 1go artikuluekin batera jarri ezkerro, eskumen arauak zehaztea zailtzen duena, zeren eta aldi askotan ez da erraza izango indarkeria zein puntutaraino diskriminazioa, ezberdintasuna eta emakumeen gaineko gizonezkoen botere harremanak mantentzeko tresna bezala erabiltzen den finkatzea edo arriskuaren alderdirik garrantzitsuena emakumea izateak duela finkatzea.

34 eta 35. artikuluei dagokienez, errekurtsio gaiean, ulertu beharra dago mistoa den sekzio bakar bat dagoen Probintzia Auzitegi haietan, edozein kasutan sekzio bakar misto hori izango dela errekurtsioak ezagutzeko eskumena duena.





## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Dagoeneko, Lege Organikoko Aurreproiektuaren aukerari buruzko hausnarketa orokorretan, epaile eta magistratuentzat dudarik gabe ematen ari den berdintasunean eta ez diskriminazioan prestakuntzak duen garrantziari buruz hitz egiteko aukera egon da, Eskola Judizial eta Etengabeko Prestakuntzaren egitarauen bitartez eman den prestakuntza hain zuzen ere eta etengabeko prestakuntzaren derrigorrezko planek helburu bezala espezializatzen diren epaileen prestakuntza hobego bat eta aldarrikatzen diren lege berrien irakaspena izatea aurreikusia izanik. Guzti hau alde batera utzi gabe epaile, magistratu eta Fiskaltzako kideek beti jaso izan dutela giza eskubideen babeserako eta funtsezko askatasun gaietan prestakuntza oso bat eta barne-sartuak dituztela gure Konstituzioak inspiratzen dituzten printzipio eta gaien existitzen diren nazioarteko testuak.

Aurreproiektuaren 38. artikulua 49 bis artikulua berri bat sartzen du Prozedura Zibilarren Legean, emakumeen aurkako indarkeria arloko kasuetan eskumen objektiboaren irizpideak finkatzeko. Manuak hutsune batzuk aurkezten ditu, behin betiko testuan hobetu beharko litzatezkeenak. Beste hausnarketa batzuen artean gogoratu beharra daukagu, prozedura zibila 1/2000 Lege berrian guztiz aldatu dela, ahozkoatasun, kontzentrazio eta hurrekotasun printzipioak zuzenduz. Honek, eskumen gaien erregulazio zehatza alde batera utziz, koherentea den sistema prozesal bat antolatzea zaila izatea mugatzen du, hau dela eta errekeritutako epailea emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epailearen alde inhibititu beharko da *“autoak, aurkitzen diren egoeran igorri”*, zeren eta ahozko epaiketaren fasea iadanik hasi baldin bada lehen aipatutako oinarri eta printzipioek, epaiketa ezagutzen ari den epailea epaia eman behar duenaren berdina izatea inposatzen du, hau dela eta autoen igorpen behar horri epe muga bat ezarri beharko zaio.



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Artikulo berdinaren bigarren atalean, prozedura zibila ezagutzen ari den epaile edo Epaitegiaren aurrean aurkezte baten gauzatze bat aurreikusten da, Fiskaltzak indarkeria izan duten egitateei buruz garrantzitsuak diren datu guztien ezagutza har dezan helburuarekin, aurkezte bat berau, non epaileak deia egiteko eta zuzentzeko esku-hartzea besterik ez duen eta hau amaitzean, inolako erabakirik hartu beharrik ez duen. Hau dela eta, aurkezte hori zuzenean Fiskaltza beraren aurrean egin ahal izateko aukera proposatzen da, dagokion salaketa aurkeztu beharra dagoen edo ez erabaki dezan, kontuan hartu gabe erabakia berehalakoa den edo eta salaketa hori ezartzeko aurreproiektuak adierazten duen bezala 24 orduko hausnarketa eta azterketa epe bat uzten zaion, prozesu zibilaren ezagutza zuen epaileak emandako ekintzen testigantza kontuan izanik egingo litzatekeen aurkeztea berau. Edozein dela kasua ere, Fiskaltzaren esku-hartzea ez litzateke oztopo bat izan behar indarkeria jokaeraren biktima izan diren aldeek dagokien salaketa aurkeztu ahal izateko edo ofiziozko epaileak egoki den testigantza ondorioztatu ahal izatea.

Hirugarren atalari dagokionez, aurretik egindako hausnarketa berriz ere aipatu beharra dugu, ahozko epaiketa burutzearen gainean.

Laugarren atalak arazo batzuk sortu ditzazke zeren eta egia bada ikuspuntu batetik aldeentzat audientzia tramite bat ezartzerakoan eta Fiskaltzari autoen igorrera ez atzeratzea gomendagarria dela, beste alde batetik, logikoki eskumen objektiboa eztabaidatzeko eskumena beti existituko da ematen den erabateko erabakiaren aurka apelatzean, eta argudiatutako aginpide eza kontuan hartzeko, prozedura berriz ere hasi beharko litzateke, izapidean oraindik atzerapen handiago batekin. Hau dela eta, kasu hauetan ere, PZLko 48.3 artikulua indarrean jarraitzeko



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

aukera aztertu beharko litzateke edo, soilik, alegazioentzat edo berehalako egitearen agertzean aldeak entzuteko epe orokorra 10 egunera jeitsi.

Ezkontideak edo emakumeari antzeko afektibitate harreman baten bitartez lotutakoak, elkarbizitza egonik edo egon gabe, emakumearen aurka salaketa bat jarri eta ondoren emakumeak beste bat gizon berdinarean aurka jartzen duen salaketa, hau da, salaketa gurutzatuak dauden kasu haietan, bestalde maiz ematen direnak, eskumena beti emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaileak hartzearen egokitasuna iradokitzen da, kasua ezagutzen legokeen beste edozein epaile kasu horretatik aldendu behar izanik.

Kasua edozein dela ere ikerketa bat egitearen komenigarritasuna aztertu beharko litzateke eta, kasua denean, aurre-epaiketari buruzkoak diren PKLko 5. eta PZLko 40. artikuluetako idazketaren aldaketa, araudi berrira moldatzeko eta disfuntzioak saihesteko helburuarekin.

39. artikuluan, Prozedura Kriminalaren Legean 15 bis artikulua berri bat gehitzen da, delitu eta falta berezi hauentzako lurraldearen arabeko eskumena, biktimak etxebizitza duen tokiari emanez, hau, alde batera utzi gabe Lege berdineko 13. artikulua babes edo premiazko neurrien ordenaren hartzea, hauek egitateen mandatuaren tokiko epaileak hartu ahal izanik. Manuaren azken zati hau, ondorengo hau gehituz osatzea posible litzateke: *“guardia funtzioetan jardutean eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileari ekintzen igorrera alde batera utzi gabe”*. Baina manuari egitea posible den lehen hausnarketa biktimak etxebizitza duen tokiko eskumenaren alde “forum delicti comisii”aren printzipio orokorra aldatzen duela da, hau hasiera batean behintzat, modu nabarmen batean, biktima berarentzat onuragarria da eta indarkeria duten arazo



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

guztien jarraipena bertako epaile berdin baten esku egitea baimentzen du. Bestalde, manu hau Aurreproiektuaren 40. artikulua barne sartutako PKLko 17 bis artikulua berriarekin eta loturagatik ematen den eskumenari erreferentzia egiten diona erlazionatzean arazoak sortu daitezke. Pentsatu etxebizitzaz aldatu den emakume baten aurka burutu den indarkeria delitu batean zigor-arloko edo alor zibileko aurre-prozedura batean emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak emandako epai baten gauzatzearen ondorio bezala. Kasu hauetan, eta Legearen espiritu eta helburua kontuan hartuz, zentzuzkoa dirudi arazo-bilduma ezagutzen duen epaile berdina izatea delitu berria bideratzen duena eta, ordea, ez gaude PKLko 17. oraingo artikuluko 3 eta 4 zenbakietan aurreikusitako hipotesietako baten aurrean ere eta loturara jotzeko aukera bakarra 17. artikulua bereko bosgarren puntua aplikagarri bezala ulertzea da, nahiz eta beti nolabaiteko era behartu batean izan.

Biktimen babes eta segurtasun neurri judizialei dagokienez, ordenamendu juridikoaren batasun eta osotasunaren alde, babes eta segurtasun neurri berri guztiak barne hartu beharko lituzketen prozedura legeen aldaketaren jardutea komenigarria iruditzen da. Horrela, 41. artikulua PKLko 13 eta 544 bis artikuluetan aurreikusitako neurriekin edo Zigor Kodeko 105. artikuluen segurtasun neurriekin erlazioan jarri beharko litzateke. 42. artikulua garapen handiagoa beharko luke eta Aurreproiektuko 1go artikuluan ezarritakoaren arabera ulertu beharko da beti.

Arazo handiagoak sortzen ditu 43. artikulua. Biktimen ondorengoen eta horien zaintza edo babespean dagoen beste edozein pertsonaren intimitatea ahal den eina babestu beharra dagoela kontuan hartuz, bereziki datu pertsonalak, arau orokorrak bistak publizitatearekin garatu behar direla esaten du, alde batera utzi gabe eta salbuespeneko izaerarekin, Epaile edo Epaitegiaren alde aurreko



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

motibazio batekin, ofizioz edo aldeek eskatuta, ateak itxita garatzea erabakitzea posible dela eta hau kontuan hartu gabe hauek alor zibilekoak edo zigor-arlokoak diren eta alde batera utzi gabe biktima-lekukoa bere burua Lekukoen Babeserako 19/1994 legearen bitartez babestua ikusi ahal izatea. Eta guzti hau, Konstituzioaren 120. artikuluan ezarritakoari guztizko konplimendua emateko.

Positibotzat hartzen dira hurrengo artikuluetan aurreikusten diren neurriak. Bere proportzionaltasuna eta beharra estimatzen duen auto motibatuaren bitartez beti hartzearen beharra baina konkretuki 45 eta 46. artikuluetan aurreikusitakoetan azpimarratu beharra dago beti adingabearen lehentasunezko interesaz arduratu beharra dagoela. Hain zuzen ere, manu hauek soilik, gurasoen ahalaren etetzearen neurriak eta adingabeen zaintza eta bisita erregimenean etetzearen neurriak aipatzen dituzte. Eta hau, etxetik irtetze, urruntze edo komunikazioen etetze neurrien ondoren (44. artikulua) eta armak eduki, eraman edo erabiltzeko eskumenaren etetze neurria baino lehen eta honek, kritika bat bai merezi du zeren eta biktimen babesa berez bakarrik inoiz ezin da erabakigarria izan seme-alaben guraso ahalaren etetze edo gabetzerako eta hau, nahiz eta horren gaineko gatazkak, emakumearentzat alderdi kriminatzaile eta arriskua duen faktore bat izanik ere, hitz batez, nahiz eta seme-alabak jaurtitzeko arma bat bezala erabili. Guzti hau, alde batera utzi gabe aita-amek beraien eskubideak gauzatzeko beharrezko neurri guztiak hartzen direla, biktima den emakumearentzat arriskurik egon gabe. Hemen aita-amen, umearen eta indarkeriaren biktima den emakumearen eskubideak eztabaidan ari dira, azken honen eskubideak lehentasunezkoak izan gabe. Umeen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak ondorengo hau inposatzen die Alde diren Estatuari, eta Espainia alde da: “umea gurasoen borondatearen kontra hauetatik aldentzea ez izatea zaintzea, soilik, berrikustapen judizialaren salbuespenarekin, eskumena duten Autoritateek,



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Legearekin eta aplikagarriak diren prozedurekin ados, aldentze hori nagusitasunez umearen interesaren onerako beharrezkoa dela erabakitzen dutenean salbu. Ebazpen edo erabaki hau beharrezkoa izan daiteke kasu zehatzetan, adibide gisa, umea bere gurasoen aldetik tratatu txarren edo ardura faltaren objektu deneko kasuetan edo gurasoak banaturik bizi direnean eta umearen bizilekuaren gainean erabaki bat hartu behar denean” (9.1 artikulua). 3. artikuluko 2. atalak, zera dio: “Alde diren Estatuak umeari bere ongizaterako behar diren babesa eta zaintza ziurtatzeko konpromisoa hartzen dute, kontuan izanik bere guraso, tutore edo Legearen aurrean umearen erantzule direnen eskubide eta betebeharrak eta helburu horrekin egoki diren legegintza-neurri eta neurri administratibo guztiak hartuko dituzte”. Manu berdinak zera ezartzen du: “gizarte-ongizateko erakunde publiko edo pribatuak, epaitegiek, autoritate administratiboek hartzen dituzten umeari buruz diren neurri guztiek izango duten funtsezko ardura, umearen interes nagusia denaren gainean hartuko direla izango da”. Alde diren Estatuak guraso batetik edo bietatik banaturik dagoen umearen eskubidea errespetatuko dute, eskubide hau ohiko era batean umeak bai ama eta bai aitarekin harreman pertsonala eta kontaktu zuzena izatea da, hau, umearen interes nagusiaren kontra ez doan bitartean”.

Ez da komenigarria ahaztea Giza Eskubideen Europako Auzitegia eta Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen babeserako bere Europako Hitzarmenaren 8. artikuluko interpretazioa, bereziki esanguratsuak dira 23-9-94, 11-7-2000, 13-7-2000, 17-12-2002, 14-1-2003ko Espaiak eta gurasoen bisitaldirako eskumenaren babeserako erabakigarriak diren beste hainbat.

48. artikulua gainean, beharbada gomendagarria litzateke ohiz kanpoko izaeraz eta premiazkoak diren arrazoiengatik, premiazko arrazoi hauek horrela



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

gomendatzen dutenean, epaileak aurreikusitako neurriren bat aparteko era batean hartzea baimentzea, alde batera utzi gabe, ondoren kontraesan, audientzia eta babes printzipioak bermatuz berronetsiak izango direla edo errekurtsua aurkeztu ahal izango dela.

Izaera orokor batekin, positiboki hartzen da Fiskaltzaren Estatutu Organikoan 18. quater artikulua barne sartzea, hau, indarkeria mota honen aurkako borrokarako eraginkorragoak diren neurriekin hornitzeko helburua izanik.

### 7.- Emakumearen sexuaren mutilazioa

Emakumearen sexu-mutilazioa, nagusitasun indarkeriaren beste agerpen bat da, gizakiarekiko mespretxuaren agerpen bat eta pertsona baten izaera objektu batera murrizten duena, fardel bat balitz, gauza soil bat balitz bezala, pertsona aske bezala bere baliogabetzera daramana, azken finean bere giza duintasunaren negatiboa izatea inplikatzeko duena.

Gaitzesgarriak diren jardute hauek, beste garai batzuetan beste Herrialde batzuetan ematen zirenak (eta gaur egun oraindik ematen jarraitzen direnak), gure Lurraldean barneratu dira migrazio jarioen ondorioz eta beharrezkoa da biktimen aldeko alde aurreko neurriekin, laguntza eta gizarte esku-hartze neurriekin aurre egitea, ikerlanaren sustapen bitartekoekin eta beharrezkoak diren berritasun legislatiboekin, hezkuntza eta informazio programekin, hauen bitartez ekintza hauek eraginduak izan diren Komunitateei biktimen osasun fisiko eta psikologikoan zer nolako ondorioak ekartzen dituzten argi eta garbi azalduko dizkiote eta horrelako jardute gaitzesgarriek zer nolako emaitza samingarria izan dezaketen



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

egileentzako.

Zigor-arloko jazarpena tresna ezin hobea da baina gure Lurraldean arrakasta eskasa izan du, zigor-arloko tipo bat izan arren, ez da ezagutzen zigor-arloko kondena epai bat bera ere (ZKko 149. artikulua) non iadanik XIX. mendetik aurrera jokaera mota hauek beti izan duten ahokadura ezin hobea eta, hau dela eta bere jazarpenerako tipo zehatz bat sortzen duen Zigor Kodeko 11/2003 erreforma Legeak barne sartutako parrafo berria ezin bestekoa izan gabe. Hala eta guztiz ere, ongi etorria izan dadila erreforma.

Egia da ikerketa eta frogapeneterako arazoak daudela zeren eta egiten diren mutilazioak Komunitate bereko sasimedikuen bitartez burutzen dira edo baita atzeritik etorritakoen bidez eta gainera isiltasunaren lege ikaragarriaren bitartez. Hala eta guztiz ere, inoiz ezin ahaztu behar da ikertu bitartean bilatzen eta jakiten dela eta ikerlanen arrakasta, hauetan jartzen den arretarekin eta ahaleginarekin proportzionala dela.

Beste alde batetik, Espainiak atzerrian “opor bidaietan” egiten diren mutilazioen jazarpenak arazo teknikoak aurkezten ditu, zigor-arloko legearen lurraldetasun printzipioa betez, baina baieztatu beharra dago Epaitegi espainolen eskumena, sortze, sustapen edo delitua faboratzeko ekintza jakinak Espainian burutu direla egiaztatzean. Kontraesankorrak diren iritziak zigorgabetasuna eragiten dute eta hutsuneak bete beharra dago eta segurtasun juridikoaren printzipioa finkatu beharra eta helburu honetarako beharrezkoa da legegilearen ahaztea osatzea botere judizialeko lege organikoaren 23. artikulua errefortzatzeko batekin, sexu-mutilazio delituak listan sartuz, zeintzuk unibertsaltasun printzipioaren arabera, epaitegi espainolen bidez jarraituak izan daitezke, egileen





## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

nazionalitatea eta delitua burutua izan deneko lurraldea alde batera utzita.

### 8.- Xedapen gehigarriak.

Lehen xedapen gehigarriak izenburu bezala “alarguntza-pentsioa” darama, baina egia esateko 2. atala ez da zentzu hertsian alarguntza-pentsioei buruzkoa baizik eta abenduak 11ko 35/1995 Legean aurreikusitako laguntzei buruzkoa, hauek indarkeria eta askatasun sexualaren aurkako delituen biktimei Laguntzak eta Sorospenari buruzkoak. Manuak zigortua izan denari buruz aipamen egitean, ez du zehazten zigorra irmoa izan behar duen, errugabetasun-presuntzioaren printzipioa kontuan hartu behar izanik eta, beste alde batetik, lesio delitu bat burutzeagatik zigortua izan dena zein puntutaraino alarguntza-pentsioa izatetik gabetua geratu behar den edo ez kontuan hartzea proposatzen da zeren eta pentsioaren galera zigor bat da azken finean eta proportzionaltasunak printzipioa urratu dezake, kontuan izaten badugu, gaur egun lege honen eremuan burututako edozein lesio, nahiz eta arina izan, delitua dela. Gainera, inputatu edo prozesatu soilak alarguntza-pentsioa lortzeko bere eskubidea gabetua kausaren tramitazioan zehar ikusteko baliabideak eratu beharko liratezke eta epai irmoa eman arte. Epai absolutio-epaia izango balitz, pentsioa ez jasotako aldeari dagozkion atzerapenekin ordaindu beharko litzateke. Bestela, alarguntza-pentsioa eskatu eta lortzeko kasua eman ahal izango litzateke, pentsio hori kondena-epaia eman arte hiletik hileria jasoz eta kasua hau balitz, arazo zaila planteatuko litzateke: jasotako pentsioa iadanik finkatua izan bada ulertzen delako gertaera eragileko momentutik jasoa izan dela, edo alderantziz, zigor irmoaren eraginkortasuna pentsioa galtzearen arrazoi bezala, gertaeren momentura bere eraginak atzera joko balu, kasu honetan, Gizarte Segurantzak zor ez diren prestazioen itzultze prozedura bat



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

premiatzeko eskubidea izango luke. Onuradun posiblearen seme-alabentzako pentsioaren ez ordainketak izan litzazkeen ondorio posibleak kontuan hartu behar dira. Honen gainean, Gizarte Segurantzaren Antolamendurako Zuzendaritza Nagusiaren 1998ko abenduan 2ko erabakia kontuan hartu behar da, berau, adingabeei erabateko umezurtz baldintza onartzeko aukerari buruzkoa, bizirik atera den gurasoa eragilearen heriotzaren errudun deklaratu izan denean eta alarguntza-pentsiorako eskubidea ez duenean.

Bigarren xedapen gehigarriari dagokionez, gomendagarria litzateke zerbitzu psiko-sozialak eta jakintza alor anitzeko zerbitzuen antolamendua aurrez ikustea; eta hirugarrenari dagokionez, 31. artikulua azaldu denean egindako behaketari igortzen gatzaizkio.

Prozedura legeen barne-koherentzia mantentzeko, hauen erreforma egiteari ekin beharko litzateke, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak aipatu beharra dagoen manu guzti haietan, bosgarren xedapen gehigarrian dagoen aurreikuspena beharrean. Azkenik, ulertu beharra dago zazpigarren xedapen gehigarriak Aurreproiektuaren 13. artikuluari egiten dioen igorpena 14. artikuluari egin beharko litzaiokeela.

### 9.- Xedapen Iragankorrak.

Lehen eta bigarren xedapen iragankorretan finkatutako irizpideak partekatuz, jardutean aurkitzen diren alor zibileko prozesu eta zigor-arloko prozesuei dagokienez, aurreikuspen falta ikusten da.



## BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

### 10.- Azken Xedapenak.

Zortzigarren azken xedapenean, eta 32. artikulua azaltzean iadanik esandakoa kontuan hartuz, Botere Judizialaren Lege Organikoan, emakumeen aurkako indarkeria arloan espezializatutako Zigor-arloko Epaitegiei aipamena barne sartzeko aukeran pentsatu beharra legoke, hauen sorketa eskumen eksklusiboaz beharrezkotzat hartuko balitz edo, kasua denean iada existitzen direnen artean bat edo beste, emakumeen aurkako indarkeria gaian eskumena ematea.

PKLko 14. artikulua aldatuz, hamabigarren azken xedapenean aurreikusitakoaren arabera, ez dirudi egokia Bake Epailei Kode Zibileko 620.1 eta 2 artikuluetan tipifikatutako jokaerengatik sortutako falten epaien ezagutzarako eskumena ematea, zeren eta edozein dela kasua ere, pertsonen aurkako falten aurrean aurkitzen gara, lehen atalari dagokionez bereziki, osotasun eta askatasunerako eskubideak eragiteagatik garrantzia berezi bat ez dutenak. Hamabigarren azken xedapen bereko bigarren atalari dagokionez, PKLko 544 ter artikulua lehen eta hirugarren ataleko erreformari ekiteari hobe litzateke, nahasteak galarazi eta legezko sistema bati batasun bat emateko helburuarekin.

Madril, 2004ko ekainak 24

**Fernando Salina Molin**ak izenpetua

**Fco. Javier Martínez Lázaro**k izenpetua



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

**Félix Pantoja García**k izenpetua

**M<sup>a</sup> Angeles García García**k izenpetua

**Luis Aguiar de Luque**k izenpetua

**Montserrat Comas D'Argemir i Cendrak** izenpetua

**Juan Carlos Campo Morenok** izenpetua